

Euskal Autonomia Erkidegoa

MEMORIA

Sozioekonomikoa 2012



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euzko Ekonomia eta Gaste
Aholkularitza Batzordea



BIGARREN AURRERAPENA

Kanpoko ingurune ekonomikoa

EAEn abagune ekonomikoa

Prezioak, kostuak eta errentak

Egitura produktiboa eta berrikuntza EAEn

2013ko ekaina

AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA.....	2
2.	KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA	7
2.1.	Faktore ekonomiko nagusiak	7
2.2.	Bilakaera ekonomikoa guneen arabera.....	8
2.3.	Europar Batasuan. Euroaren eremua.....	11
2.4.	Espainako Ekonomia.....	14
2.5.	Autonomia Erkidegoa	18
3.	EAE-REN ABAUNE EKONOMIKOA	19
3.1.	Eboluzio Orokorra.....	19
3.2.	Barne eskaria.....	24
3.3.	Kanpoko eskaria	24
3.4.	Atzerriko inbertsioa	28
4.	PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK	33
4.1.	Ondasunen eta kontsumoko zerbitzuen prezioak	33
4.2.	Kostuak	35
4.3.	Errentak	39
5.	EGITURA PRODUKTIBOA ETA BERRIKUNTZA EAEn.....	43
5.1.	Enpresa egitura eta demografia.....	43
5.2.	Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea	48
5.3.	Industria	50
5.4.	Eraikunta	56
5.5.	Zerbitzuak.....	57
6.	GOGOETAK	

1. AURZKEZPENA

Jarraian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egindako EAEko 2012ko Memoria Sozioekonomikoaren bigarren aurrerapena aurkeztuko dugu, hau da, urteko txostenaren zati bat. Memoria honetan Batzordeak, bertako kide diren eragile ekonomikoek eta sozialek adostuta, Erkidegoaren erradiografia erakusten du datu ofizialak oinarritzat hartuta.

Bigarren aurrerapenean EAEko egoera ekonomikoa eta atzerriko abagunean islatu dira; kapitulu hauek dauzka: "Kanpoko egoera ekonomikoa", "EAEko egoera ekonomikoa", "Prezioak, kostuak eta errentak" eta "Ekoizpen-egitura" EAEren egoera ekonomikoa eta kanpo testuingurua Errosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera munduko BPG haztatua % 3,2 hazi zen, eta aurreko epealdian, berriz, %4, NDFaren zenbatespenen arabera.

Ekonomia aurreratuek % 1,2ko gorakada izan zuten: AEBko BPGd-a % 2,2 eta Japoniakoa % 2 handitu ziren, eta Euroaren Eremua, aldiz, % 0,6 jaitsi zen.

Horrez gain, goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak % 5,1 inguru handitu ziren, aurreko urteko hazkundeak % 6,4koa izan zela. Brasilek % 0,9ko hazkunde txikia izan zuen, aurreko aldikoa % 2,7koa izan zela. Txina eta India % 7,8 eta % 4 handitu ziren, hurrenez hurren, 2011n % 9,3 eta % 7,7 hazi arren.

Jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin bat etorritik, munduko merkataritzaren hazkundeak aurreko urtekoa baino ahulagoa izan zen, % 2,5eko aldakuntza-tasa izanda, aurrekoa % 6koa izan zela.

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2011 eta 2012 bitartean, Brent upelaren batez besteko prezioa % 0,8 handitu zen: lehen 111,7 \$-ekoa zen, eta orain, aldiz, 112,6 \$-ekoa. Lehengai ez-energetikoen prezioek aurkako aldakuntzak izan zituzten: elikagaien prezioak 2011koak baino handiagoak izan ziren; industria-gai metalikoenak zein ez-metalikoenak, berriz, txikiagoak izan ziren.

Testuinguru horretan, euro-gunearen egun baterako esku-hartze tasa 2011 itxi zen moduan eutsi zitzaion 2012ko uztailera arte: %1.

Hil horretan, %0,75era jaitsi zuen Europako Banku Zentrala; ratio berarekin itxi zen urtea. Bestalde, AEBetako Erreserba Federalak eta Japoniak Bakuak berriz ere mantendu zituzten esku-hartze tasak 2012an, 2011 itxi zen moduan; lehenbizikoa %0,25ean eta bigarren %0,1ean.

VI.1.5 KOADROA ADIERAZLE NAGUSIAK

	2011		2012			
Munduko merkataritzan aldakuntza tasa	6,0		2,5			
Munduko PBGaren (benetakoa) aldakuntza tasa	4,0		3,2			
	EAE		EB27		ESTATUA	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Per capita BPG (1)	-	-	100	100	99	98
PBGaren (benetakoa) aldakuntza	+0,5	-1,2	1,6	-0,3	0,4	-1,4
Produktibitatea	1,3	1,4	1,3	0,1	2,0	2,9
	EAE		EUROGUNEA		ESTATUA	
	2011	2012	2011	2011	2012	2011
Azken kontsumo pribatuaren benetako aldakuntza	0,3	-1,0	0,1	-1,2	-0,8	-2,2
FBCFren benetako aldakuntza	-1,8	-5,4	1,6	-3,9	-5,3	-9,1
Esportazioen benetako aldakuntza	5,5	-5,2	6,5	2,9	7,6	3,1
Inportazioen benetako aldakuntza	4,0	-6,4	4,4	-0,9	-0,9	-5,0

(1) PPS, EB27=100

Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT

Euroguneko moneta-merkatuaren interes tasek behera egin dute epe guztietan. Hilabeterako Euriborra %0,64 zen urteko lehen hiruhilekoan, eta laugarrena %0,11rekin bukatu zuen. Hiru hilerako Euriborra %1,04tik %0,2ra igaro da lehen eta laugarren hiruhilekoaren artean, eta urtebeteko euriborra %1,67arekin hasi eta %0,6arekin bukatu zuen.

Truke eta burtsa merkatuei dagokionez, dibisen merkaturak EEBetako dolarraren benetako truke tasa errealek tokia irabazi zuen eta, ondorioz, euroak balio pixka bat galdu zuen. Halaber, Europako dibisak balio galdu zuen, libera esterlinaren eta yenaren aldean. Munduko burtsa merkatuei dagokionez, Espainian IBEX 35ek urte arteko % 4,6ko jaitsiera izan

zuen (2012ko abenduan neurtutakoa, 2011ko abendukoaren aldean), aurreko urteko % -13,1en aldean; Nikkei % 22,9 egin zuen gora, 2011ko % -17,3ren aldean; Dow Jones indizeak % 7,2 egin zuen aurrera, 2011ko % 5,5en aldean; eta Euro Stoxx zabala % 15,5 handitu zen, aurreko urteko % 18ko jaitsieraren aldean.

EB eta zehazkiago eurogunea oinarri hartuta, urte arteko terminoetan, %0,5ekoa izan zen BPGaren benetako aldakuntza tasa 2012an; aurreko urtean, berriz, %1,5eko hazkundea izan zen.

Sektoreen aldetik, atzeraldia izan da osagai guztietan, eta industriaren eta nekazaritzaren kasuan, aldakuntza tasak negatibo bihurtu dira (eraikuntzak bazuen 2011n aldakuntza tasa negatiboa eta jaitsiera areagotu egin da 2012. urtean). Bereziki deigarria da industrian ikusitako joera aldaketa; izan ere, 2011n %3,4ko aldakuntza tasa positiboa izatetik tasa negatibora igaro da 2012an, % -1,3ra hain zuzen. Zerbitzuen sektoreei dagokienez, merkatu-zerbitzuen kasu zehatzean, nahiz eta urteko batez besteko aldakuntza positiboa izan (%0,1), hiruhileko profileen atzeraldi argia ageri da; are gehiago, aldakuntza tasa negatiboak bildu dira azken bi hiruhilekoetan: % -0,1 eta % -0,2 hurrenez hurren.

EBri dagokionez, EUROSTATen arabera, % -0,3koa da BPGaren aldakuntza-tasa termino errealetan EB27ko eremuan 2012. urtean. Herrialde hauetan daude hazkunde tasarik handienak: (%5,6), Lituania (%3,6), Estonia (%3,2), Eslovakia (%2) eta Polonia (%1,9). Tasa txikiagoak dituzte hauek: Irlandak (%0,9), Suediak, Austriak, Maltak eta Bulgariak (lauretan %0,8), Errumaniak eta Alemaniak (bietan %0,7), eta Erresuma Batuak eta Luxenburgok (bietan %0,3). Frantziak aldakuntza tasa nulua du, eta gainerako estatuak tasa negatiboak dituzte.

Langabezi tasak bi digituak gainditzen ditu hainbat estatutan. Zehazki, %10 eta %12 arteko tasak daude: Polonian, Estonian, Frantzian, Italian, Hungarian eta Zipren. %12-%15ekoak: Bulgaria, Lituania, Eslovakia, Irlanda eta Letonia. Eta %15etik gorakoak, EB27ko langabezi tasarik handienak, Portugalen (%15,9), Grezian (%24,3) eta Espainian (%25). Tasarik txikiak, berriz, herrialde hauetan daude: Austriak (%4,3), Luxenburgon (%5,1), Holandan (%5,3) eta Alemanian (%5,5).

Espainiako ekonomia ardatz hartuta, EINren arabera, BPG errealearen urteko batez besteko %1,4ko jaitsierarekin itxi da 2012. urtea; urtebete lehenago, berriz, %0,4ko hazkundea izan zen.

Nazio eskaria PBGaren urte arteko hazkudetik urrundu izanaren emaitza da bilakaera hori. Hala, nazio eskariak %3,9 kendu dio BPGaren urte arteko hazkudeari 2012. urtean. Kanpoko eskariak, berriz, %2,5eko ekarpena du.

Eskariaren aldetik, barne eskaria ahulago dago zeren eta, urte arteko kopuruetan, haren osagai guztietan beherako profil handiagoa baitu. Kontsumo publikoak luzatu egiten du beheranzko joera: % -0,5etik % -3,7ra 2011 eta 2012 bitartean. Etxeetako azken kontsumoko gastuak %2,5 egin zuen behera. 2011. urtean, berriz, % -0,8. Kontsumo pribatua azaltzeko faktore nagusien artean, enplegua desagitea eta familien errenta eskuragarria murriztea daude, baita irailaren 1ean indarrean sartu ziren BEZaren tasen igoerengatik erosketak aurreratu izanaren ondorioetatik ere. Kapital finkoaren eratze gordinak areagotu egin du beherako joera, % -5,3tik % -9,1era, haren osagai nagusiaren (eraikuntza) atzeraldi handiagoaren eta ekipo ondasunen eta landutako aktiboaren eta aktibo finko ez-materialen beheranzko joeraren ondorioz.

Bestalde, aipatu dugunez, kanpoko eskariak ekarpen positiboa egin dio BPGaren hazkudeari (2,5 puntu). Esportazioek, 2011 eta 2012 bitartean, urte arteko batez besteko %3ko hazkunde izan zuten (aurreko urteko %7,5ekoa baino txikiagoa). Inportazioek, berriz, aurreko urtean baino jaitsiera handiagoa izan dute (% -5, eta aurreko urtean % -0,9).

Eskaintzaren aldetik, 2012ko BPGaren urte arteko jaitsiera ekoizpen-adar guztien jardueran islatu da, lehen mailako sektorean izan ezik; izan ere, haren balio erantsi gordinak (BEG) %2,2 egin zuen gora, aurreko urtean baino %6 gutxiago. Industriaren BEGak %2,9 egin du behera eta aurreko urtean, berriz, %2,7 hazi zen; eraikuntzan %8,1eko jaitsiera izan zen (% -5,9 aurreko epealdian); eta zerbitzuen sektoreak % -0,4ko tasa izan du, aurreko urtean %1,4 igo ondoren.

Jardueraren murrizpen horren ezaugarri nagusia, gainera, beheranzko profila izan da urte osoan, eta areagotu egin ditu balio negatiboak hiruhilekoetako

barne eskariaren osagai guztietan eta, horrekin batera, bizkortu egin da enplegua desegiteko prozesua. Hala, %1,7 egin du behera 2011n lanpostuen kopuruak (lanaldi osoko lana dutenak); 2012an %4,4ko jaitsiera zenbatu da. Soldatapekoen jaitsiera %5,1ekoa izan da; aurreko urtean, berriz, %1,5ekoa izan zen. Bestalde, EInren Populazio Aktiboaren Inkestak agerian utzi duenez, langabezi tasak (16 urtetik gorakoak) %21,6tik %25era egin du gora. Hauexek dira tasarik txikiak dituzten autonomia erkidegoak: EAEk %15, Nafarroak %16,4, Kantabriak %17,9, Aragoik %18,7 eta Madrilek %19,2. Estatuko batez bestekoaren gaineratik daude Ceuta (%38,8), Andaluzia (%34,7), Uharte Kanariarrak (%33,3), Extremadura (%33,1), Melilla (%28,9), Gaztela-Mantxa (%28,6), Murtzia (%28) eta Valentziako Erkidegoa (%27,8).

Kanpoko sektorearen ekarpen positiboarekin bat etorritik, Espainiako ekonomiak hobetu egin du finantza egoera munduko gainerako herrialdeekiko. Ekonomiaren finantzazio beharra (defizita) BPGaren %3,2koa zen 2011n; 2012an, berriz, %0,2koa da, hots, 2.635 milioi euro, aurreko urtean baino 31.578 milioi gutxiago.

EAEren ekonomiaren bilakaera aztertuko dugu orain. EUSTATen 2013ko otsaileko datuen arabera, urte arteko %1,2ko jaitsiera izan zen 2012an termino errealetan, eta aurreko urtean, berriz, %0,5ekoa izan zen. BPG, ohiko terminoetan, 66.223 milioi eurokoa izan zen.

Eskariaren gaineko azterketak erakusten duenez, aurreko epealdian baino askoz beherakada handiagoa gertatu da barne eskarian (%-2,2koa, aurrekoa %-0,3koa izanik), eta urte arteko BPGaren jaitsiera %1,2koa izan da. Agerian uzten du horrek kanpoko saldoaren ekarpen positiboa, zehazki ehuneko batekoa, esportazioen (%-5,2) nahiz inportazioen (%-6,4) mailetan jaitsierak gertatu badira ere.

Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruz ematen dituen datuen arabera, betiere Aduanetako Erregistroetan oinarrituta, %0,9ko jaitsiera izan da esportazioen ohiko balioan 2012. urtean, eta %10,8ko igoera energiakoetan eta %2,1eko jaitsiera energiakoak ez direnetan (guztizkoaren %90 dira). Bestalde, %10,4 egin dute behera guztizko inportazioek, non energi inportazioen balioa (guztizkoaren %35) %10,2ko eta

energiakoak ez direnean %10,5eko jaitsierak gertatu diren.

VI.1.6. KOADROA ADIERAZLE NAGUSIA. EAE

	2008	2012
Establezimendu kopurua	203.911	184.471
Establezimenduen guztizko enplegua (Iturria: DIRAE)	942.479	873.121
Batez besteko enplegua	5,1	5,3
Industriaren BEG/BPG (mila eurotan)	24,5	22,0
Eraikuntzaren BEG/BPG (mila eurotan)	9,2	7,1
Zerbitzuetako BEG/BPG (mila eurotan)	56,5	61,6

Iturria: EUSTAT

EAEko energiakoak ez diren esportazioen aduanasariaren taldeko azterketan agerian geldituenez, lehenik eta behin ekipo-ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %42,3 (makinak, 4.241,4 milioi euro, eta garraio materiala, 4.337,6 milioi euro). Esportazioak %2 egin du behera, garraio materialaren esportazioaren jaitsieragatik (%-7,7), zeren makinek eta aparatuek gora egin baitute (%+4,6). Bigarrenik, metal komunak eta horien manufakturen esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %25,7,4ko jaitsiera izan da horien esportazioan. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %8,4; aldakuntza tasa positiboa du (%1,9). Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, metalak eta horien manufaktura nabarmentzen dira, guztizko inportazioen %21,2, %16,6 jaitsita, eta bigarrenik guztizko inportazioen %19,2 diren ondasun-ekipoak. Izan ere, %2,7 jaitsi dira, makinak eta aparatuen (%-2,9) nahiz garraio materialaren (%-2) jaitsieragatik.

Energiakoak eta energiakoak ez diren produktu eta ondasunak bereizita ondoriozta daitekeenez, energi saldoa defizitarioa da (-3.3847,7 milioi euro). Energiakoak ez diren produktuek, berriz, 8.179,0 milioi euroko superabita dute, BPGaren %12,4 hain zuzen, aurreko urtekoa baino (%11,1) %1,3ko ratio handiagoa.

EAEko esportazio ez energetikoen helmuga zein den kontuan hartuta, ELGari zuzendutakoak eta eremu horren barruan 15EBri zuzendutakoak dira, berriz ere, garrantzitsuenak: kopuru osoaren % 77,2 dira, eta % 2,4ko jaitsiera-tasa ageri dute. Berezik

azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz, Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak, EAEk EB15erantz egindako esportazioen % 77 izanez. Inportazioei dagokionez, haietako gehienak ELGAtik datoz eta, zehazki, EB15eko herrialdeetatik, funtsean, Alemaniatic, Frantziatic eta Italiatic, EB15etik egindako inportazio guztien % 54,3 hartuz. Neurri txikiagoan ageri dira Erresuma Batua, Belgika eta Portugal.

Eskaintzaren aldetik, 2011 eta 2012 urte artean, eraikuntzaren beherakada nabarmentzen da; izan ere, %6,3ko murrizpena izan du, eta beheranzko joerari eusten dio. Industrian eta energian aurreko urtean aldakuntza tasa positiboa izan bazuen ere (%+2), behera egin du jardueran, %2,4 hain zuzen, gehienbat manuflakturen industriaren atzeraldiagatik (%-2,1). Nabarmentzekoa da industri jarduerak urteko lau hiruhilekoetan izan duen etengabeko beherakadarako profila ere. Zerbitzuen sektorean ere jaitsiera izan da jarduera mailan, %0,3koa.

Prezio arrunteko BPGaren bilakaerak erakusten duenez, jaitsi egin da industriaren sektorearen indarra, BPGaren %24,5etik 2008an %22ra izatera 2012an. Eraikuntzak, berriz, %9,2tik %7,1era; eta zerbitzuak %56,5etik %61,6ra.

EUSTATen Ekonomi Jardueren Direktorioaren gaineko 2012ko azken datuen arabera, guztira 184.471 establezimendu zenbatu dira, EAEko 165.517 enpresari dagozkienak (lehen sektorekoak alde batera utzita). Horren ondorioz, 2008 eta 2012 urte artean, enpresen kopuruak (lantegiak, dendak, bulegoak...) behera egin du EAEn, %10,2 (18.773 enpresa gutxiago), eta enpleguaren jaitsiera %7,4koa denez (-69.358), enpresa bakoitzeko batez besteko tamaina 5,1etik 5,3ra igaro da.

Produktibitateari dagokionez, hazkundera EAEn (%1,4) handiagoa da termino errealetan Europar Batasunean erregistraturikoa baino (EB27an nahiz euro-gunean: %0,1). Horrez gain, Estatuan askoz tasa erreal handiagoa da, %+3koa, behin-behineko datuen arabera.

Bestalde, gure ekonomiaren ULK ohikoek behera egin dute (%-0,7, 2011ko ratio berdina) industrian (%-0,9) eta eraikuntzan (%-9,2). Zerbitzuetan, berriz, %0,5eko igoera gertatu da. Europar Batasunean, ULK

nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatzen dena, areagotu egin ziren 2012. urtean % 2,9 (EB-27) eta % 1,6raino eurogunean.

Inflazioari dagokionez, EAEn urteko batez besteko tasa 2012an %2,3koa da EAEn, 2011ko datua baino 8 hamarren gutxiago. Hala ere, abenduko urte arteko inflazioa %2,7koa da, aurreko urtekoa baino 3 hamarren handiagoa.

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn areagotu egin zen 2011 eta 2012 artean, hain zuzen ere % 217,3 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero. Orotara, 433.802 milioi euro jaso ditu EAEk. Alabaina, EAEk estatuko guztizkoarekiko duen proportzioa igo egin da: 2011ko %2,2tik 2012ko %3,2ra. Hala, EAEk hirugarren tokia du 2012an inbertsioen bolumenean; ondoren Madril dator, 8.727,8 milioi euro, atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz, eta gero Katalunia, 2.603 milioi euroko jasotzen dituen. 2011n, hirugarren tokian zegoen EAE inbertsioen bolumenean, Madril eta Kataluniaren atzetik. Sektore ikuspegitik begiraturaz, bereziki nabarmenak dira, guztizkoarekiko duen pisua dela eta, informazio eta komunikazioen, industria kimikoaren eta kautxu eta plastikoaren eraldaketaren, administrazio jardueren eta zerbitzu osagarri eta osasun eta gizarte zerbitzuen jardueren sektorean eginikoak. Lurralde ikuspegitik begiraturaz gero, inbertsioaren azken titularra bizi den herrialdea ELGako herrialde batean kokatzen da kasuen % 96,7an, eta % 74,4tan 15EBean (guztira 322,6 milioi euro). Bereziki nabarmena da Brasil, India eta Zeelanda Berritik eratorritako inbertsioen igoera; izan ere, atzerriko inbertsioek EAEn eginiko inbertsioen %1,9, %10,4 eta %13 dira hurrenez hurren.

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kanpo utzita, hazi egin da 2011. urtetik 2012. urtera bitartean, 5.321 milioi eurotik 5.291 milioi eurora. EAEk laugarren postua betetzen du EAEko rankingean atzerrian eginiko inbertsioagatik. Aurretik daude Madril, 6.916 milioi euro; Kantabria, 1.593, eta Katalunia 1.240. Sektoreen aldetik eta finantza eta aseguru jarduerak eta argindar, gas, lur eta aire egokituaren jarduerak alde batera utzita, EAEn kanpoko inbertsioaren %59,2 eta %20,7 hurrenez hurren, eta Estatuak atzerrian sektorean

eginikoaren %11,3 eta %7,9. Hauexek nabarmentzen dira:eraikuntza, beste manufaktura batzuk eta handizkako eta txikizkako merkataritza eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa.Herrialdeen arabera, hauexek izan dira EAEn inbertsioaren helmuga nagusiak 2012an EB15ean: Portugal (50 milioi euro), Alemania (39,7 mila euro) eta Frantzia (30 milioi).Eta eurogunetik kanpora:Mexiko (42,6 mila euro), Hego Korea (10,1 mila euro), Txina (9,4 milioi) eta Brasil (7,1).

2. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA

2.1. SEKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK

2012ko lehenengo seihilekoan jarduera ekonomikoaren abiadura moteldu zen, industria-ekoizpena eta nazioarteko merkataritza murrizteagatik, funtsean. Bigarren seihilekoan jarduera egonkortzen joan zen ekonomia aurreratuetan, eta gora egin zuen goranzko merkatuen eta garatzeko bidean dauden merkatuen ekonomietan, politikek konfiantza suspertzen lagundu baitute.

Horrela, Europako agintariek hartutako neurri zorrotzek konfiantza eta finantza-baldintzak hobetzen lagundu zuten. Estatuabatuak "amildegi fiskala" ekidin zuten, eta, aurreikusitako dezelerazioa baino handiagoa izan zenari erantzunez, Japoniak politika makroekonomiko hedagarriagoak hartu zituen. Denborak aurrera egin ahala, funtsezko garrantzia daukaten goranzko merkatuetako politikak baretu izanak barneko eskaria suspertu zuen.

Gauzak horrela, 2012ari dagokionez, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera haztatutako munduko BPGd-a % 3,2 handitu zen, aurreko aldiko % 4ren aurrean, NDFren balioespenen arabera.

Ekonomia aurreratuek % 1,2ko gorakada izan zuten: AEBko BPGd-a % 2,2 eta Japoniakoa % 2 handitu ziren, eta Euroaren Eremua, aldiz, % 0,6 jaitsi zen.

Horrez gain, goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak % 5,1 inguru handitu ziren, aurreko urteko hazkunde % 6,4koa izan zela. Brasilek % 0,9ko hazkunde txikia izan zuen, aurreko aldikoa % 2,7koa izan zela. Txina eta India % 7,8 eta % 4 handitu ziren, hurrenez hurren, 2011n % 9,3 eta % 7,7 hazi arren.

Jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin bat etorritz, munduko merkataritzaren hazkunde aurreko urtekoa baino ahulagoa izan zen, % 2,5eko aldakuntza-tasa izanda, aurrekoa % 6koa izan zela.

II.1.1. KOADROA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN AURKIBIDEA

	2011	2012
BPGd-a (urteko portzentajezko aldakuntza)		
Mundua	4,0	3,2
Ekonomia aurreratuak (1)	1,6	1,2
AEB	1,8	2,2
Japonia	-0,6	2,0
Euroaren Eremua	1,4	-0,6
• Bestelako ekonomia aurreratuak (AEB, Euroaren Eremua eta Japonia alde batera utzita)	2,6	1,4
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak	6,4	5,1
Latinoamerika eta Karibe	4,6	3,0
Brasil	2,7	0,9
Mexiko	3,9	3,9
Estatu Independenteen Komunitatea	4,8	3,4
Errusia	4,3	3,4
Errusia alde batera utzita	6,1	3,3
Asian garatzeko bidean dauden herrialdeak	8,1	6,6
Txina	9,3	7,8
India	7,7	4,0
Erdialdeko eta Ekialdeko Europa	5,2	1,6
Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika	3,9	4,7
Afrika azpisahararra	5,3	4,8
Hegoafrika	3,5	2,5
Ondasunen eta zerbitzuen munduko merkataritza (ondasunen eta zerbitzuen munduko esportazioen eta inportazioen urteko aldakuntzaren %ren batezbestekoa)	6,0	2,5
Kontsumoko prezioak (urteko portzentajezko aldakuntza)		
Ekonomia aurreratuak	2,7	2,0
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak	7,2	5,9
North Sea Brent petrolioaren prezioa (\$/upel, urteko batezbestekoa)	111,7	112,6
Lehengaien prezioak (€) (2005eko indizea = 100)		
Elikagaiak	196,9	209,9
Industria-gaiak (ez metalak)	214,4	166,0
Industria-gaiak (metalak)	161,4	150,8
Eskuhartzearen interes-tasa (aldiaren amaieran)		
EDB	1,00	0,75
AEB – funts federalen tasa objektiboa	0,25	0,25
Japonia – Call Money (2)	0,10	0,10
Euroaren truke-tasa (moneta unitateak €-ren arabera)		
Dolarra euroaren arabera	1,392	1,286
Libera esterlina euroaren arabera	0,868	0,811
Yen japoniarra euroaren arabera	111,02	102,62
Burtsa: kotizazio-indizea (abendutik abendurako portzentajezko aldakuntza)		
Dow Jones (New York)	5,5	7,2
Nikkei	-17,3	22,9
Euro Stoxx zabala	-18,0	15,5
Ibex 35	-13,1	-4,6

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, Euroaren Eremua, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur. (2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes-tasa.

Iturria: NDFren "Munduko ekonomiaren aukerak" (2013ko apirila) eta Ekonomia Ministerioaren "Adierazle ekonomikoaren laburpena"

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2011 eta 2012 bitartean, Brent upelaren batez besteko prezioa % 0,8 handitu zen: lehen 111,7 \$-ekoa zen, eta orain, aldiz, 112,6 \$-ekoa. Lehengai ez-energetikoen prezioek aurkako aldakuntzak izan zituzten: elikagaien prezioak 2011koak baino handiagoak izan ziren; industria-gai metalikoenak zein ez-metalikoenak, berriz, txikiagoak izan ziren.

Aldi berean, finantza eta moneta baldintzak gero eta onuragarriago bilakatzen joan ziren, urteak aurrera egin ahala, errentagarritasunaren bilaketa eta ekonomia garatu nagusietako batzuetako banku zentralen moneta politika hedagarrietan sakontzeko aukerak nagusi izan dituen ingurunean.

Testuinguru horretan, Euroaren Eremuko egun baterako eskuhartze-tasa % 1en egon zen 2012ko uztailera arte, 2011ren amaieran bezala. Hil horretan, Europako Banku Zentralak % 0,75eraino jaitsi zuen, eta urtearen amaieran ratio berean zegoen.

Moneta merkatuko interes-tasei dagokienez, horiek epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabeterako Euribor indizea % 0,64n egon zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,11n egon zen; hiru hilabeterako Euribor indizea, aldiz, % 1,04n egon zen lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,2n; eta urtebeterako Euribor indizea % 1,67n zegoen urtearen hasieran, eta amaieran % 0,6n zegoen.

Horrez gain, AEBko Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak 2012an beren eskuhartze-tasei eusten jarraitu zuten, 2011ren amaieran bezala: lehenengoak % 0,25eko tasa zuen, eta bigarrenak, berriz, % 0,1ekoa.

Amaitzeko, kanbio eta burtsa merkatuei dagokionez, dibisa merkatuan AEBko dollarraren truke-tasa erreal eta eraginkorra zabaldu egin zen, eta, horren ondorioz, euroak balio-galera txikia izan zuen. Halaber, Europako dibisak balioa galdu zuen, libera esterlinaren eta yenaren aldean.

Munduko burtsa merkatuei dagokionez, Espainian IBEX 35ek urte arteko % 4,6ko jaitsiera izan zuen (2012ko abenduan neurtutakoa, 2011ko abendukoaren aldean), aurreko urteko % -13,1en aldean; Nikkeik % 22,9 egin zuen gora, 2011ko % -17,3ren aldean; Dow

Jones indizeak % 7,2 egin zuen aurrera, 2011ko % 5,5en aldean; eta Euro Stoxx zabala % 15,5 handitu zen, aurreko urteko % 18ko jaitsieraren aldean.

2.2. BILAKAERA EKONOMIKOA GUNEEN ARABERA¹

Ameriketako Estatu Batuak.

2012an Ameriketako Estatu Batuek hazkunde txikia izan zuten (nahiz eta aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa izan: % 2,2 % 1,8ren aurrean), finantza-krisitik ondorioztatutako ondorio nabarmenen, etengabeko zerga-finkapenaren, kanpoko baldintzen ahultasunaren eta aldi baterako shocken (nekazaritza jarduera eta inbentarioak ukitu zituen lehorte larria eta Sandy ekaitzak herrialdearen ipar-ekialdean eragindako arazoak, besteak beste) isla gisa.

Hala eta guztiz ere, badirudi susperraldiranzko bidea konpontzen ari dela. Kredituaren hazkundera gorantz joan da, eta banku-kredituaren baldintzak, oso murriztaileak zirenak, pixkanaka-pixkanaka malgutzen joan dira. Urtean zehar eraikuntzaren jarduerak ere gora egin du, nahiz eta maila txiki-txikietatik abiatu; higiezinaren prezioak gora egiten hasi ziren, eta lanpostuak sortu ziren urteko bigarren sei hilekoan. Gauzak horrela, langabezia-tasa % 8 ingurukoa izan zen. Soldata-igoerak neurritzkoak izan dira, eta horri esker inflazio-prezioari eusten lagundu da. KPIren urteko portzentajezko aldakuntza % 3,1etik % 2,1era jaitsi da 2011 eta 2012 bitartean.

Dena den, susperraldi txiki hori gorabehera, hazkunde ekonomikoa langabezia-tasa neurri handian murrizteko behar denetik urrun dago oraindik.

Japonia.

2012aren amaieran Japoniak urteko lehenengo erdiko balantzea baino okerragoa agertu zuen kontu ekonomikoetan. Horrela, kontsumo pribatuaren eta higiezinaren inbertsioaren bilakaera ona gorabehera, enpresa-inbertsioak nabarmen egin zuen behera, eta ekonomia oro har moteltzea eragin zuen. Horrez gain, esportazioak ere mundu mailako ekonomiaren dezelerazioak eragindako jaitsieran murgilduta egon

¹ Epigrafe honetan agertzen den informazioa hainbat iturritatik dator: Nazioarteko Diru Funtsa, Europako Banku Zentrala eta Eusko Jaurlaritza.

ziren. Horrela, BPGd-a %2 handitu zen, ratio hori 2011ko % 0,6ko murrizketa baino handiagoa dela.

Lan-merkatuari dagokionez, langabezia-tasa % 4,4koa izan da 2012an.

Europako goranzko ekonomiak.

Euroaren Eremuko krisia areagotzeak Europako goranzko ekonomien jarduera kaltetu zuen 2012an. Esportazioak gelditzen joan ziren, konfiantza hondatu zen, eta Mendebaldeko Europako bankuek beren ordezkatzailaetarako finantzaketa murriztu zuten.

Efektu horiekin batera barneko politika murriztaileak ere egon ziren: Turkian ekonomiaren gainberotzeari eusteko eta Polonian helburuak gainditzeko zituen inflazioari eta zerga-defizit handiari aurre egiteko.

Horren ondorioz, eskualdeko hazkundea suntsitu zen 2011ko % 5,2tik 2012ko % 1,6ra; eta Hegoekialdeko Europako zenbait ekonomia, 2008 eta 2009ko krisiaren ondoren erabat suspertu ez zirenak, atzeraldian egon ziren berriro ere.

Asiako goranzko ekonomiak.

Hazkundea moteldu zen eskualde osoan 2012aren erdialdean, Txinan esportazioak oro har ahuldu (ekonomia aurreratu gehienetan inportazioen eskaeraren hazkundea moteldu da, eta hori bat dator Asiako esportazioen hazkunde txikiagoarekin) eta 2010ean eta 2011n hazkundea moteltzeko eta hobeto orekatzeko politika murriztaileagoak aplikatu ondoren. Horrela, gune osoan BPGd-aren hazkundea 2011ko % 8,1etik 2012ko % 6,6ra jaitsi da.

Hala eta guztiz ere, 2012ko laugarren hiruhilekoan Txinak BPGd-aren dezelerazioaren zazpigarren hiruhilekoarekin amaitu zuen, eta % 7,9ko hedapena izan zuen. Gorakada (urritik abendura bitartean gertatutakoa) urteko lehenengo erdian hartutako zerga- eta moneta-politika hedagarriak aplikatzeari esker gertatu zen. Urteko batez besteko hazkundea % 7,8koa izan zen, hazkunde-tasa hori txikiena dela 1999tik. Inflazioari dagokionez, 2011ko % 5,4tik 2012ko % 2,6ra murriztu zen.

Horrez gain, Indiako hazkundea % 4koa izan zen, 2011n erregistratutako % 7,7ren aurrean. Nolabaiteko

ahultasuna antzeman zen nekazaritza eta industria ekoizpenean, eta barneko kontsumoa eta atzerriko inbertsioa murriztu ziren. Ekoizpenaren beheranzko joera horrekin batera inflazio-presio bizia egon zen, kontsumoko prezioen indizea % 8,9 eta % 9,3 handitu zela 2011n eta 2012an, hurrenez hurren.

Estatu Independenteen Erkidegoa (EIE)².

Nahiko indartsua izan zen hasieraren ondoren, jarduera eskualdean moteldu zen 2012 osoan. Gauzak horrela, urteko batez besteko hazkundea % 3,4koa izan zen, 2011ko % 4,8ren aurrean.

Mundu mailako dezelerazioak eskualde osoko esportazioak ukitu zituen, nahiz eta eragina handiagoa izan zen EIEko Europako herrialdeetan Kaukason eta Erdialdeko Asian baino. Barneko eskaria ere ahuldu zen.

Latinoamerika eta Karibe (LK).

Eskualdean BPGd errearen hazkundea 2011ko % 4,6tik 2012ko % 3ra murriztu zen, kanpoko eskariaren dezelerazioa eta batzuetan barneko faktoreen eragina zirela-eta.

Dezelerazioa oso nabarmena izan zen eskualdeko ekonomia handiena den Brasilen, eta hor diru-politikaren pizgarri handiak ez zuen lortu inbertsio pribatua sustatzea. Haren dezelerazioa eskualdeko haren merkataritza bazkideetara hedatu zen, eta bereziki Argentinara, Paraguaira eta Uruguaira.

Horrez gain, finantza-merkatuetako gainerako ekonomia gehienetan (Txile, Mexiko, Peru), hazkundea indartsua izan zen. Erdialdeko Amerikako jarduera ekonomikoak gogorra dela erakutsi zuen, 2012ko batez besteko hazkundea % 4,8koa izan zela.

Hala ere, Karibe eskualdeko zati handian zorraren maila handiek eta turismoak eragindako diru-sarrera urriek susperraldia zapaldu zuten.

² Nazioz gaindiko erakundea, 15 sobietar errepublika ohietatik 10ek osatzen dutena, Baltikoko 3 estatuak (Estonia, Letonia eta Lituania), Turkmenistan eta Georgia izan ezik..

II.1.2. KOADROA. BPGd ERREALA, KONTSUMITZAILEARENTZAKO PREZIOAK ETA KONTU KORRONTEKO SALDOAK (NDF)

	BPGd errealaren urteko portzentajeak aldakuntza		KPIren urteko portzentajeak aldakuntza		Kontu korronteko saldoa BPGd-aren % gisa		Langabezi a-tasa
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	
Ekonomia aurreratuak	1,6	1,2	2,7	2,0	-0,2	-0,1	
AEB	1,8	2,2	3,1	2,1	-3,1	-3,0	8,0
Japonia	-0,6	2,0	-0,3	0,0	2,0	1,0	4,4
Euroaren Eremua	1,4	-0,6	2,7	2,5	0,6	1,8	11,4
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak					1,9	1,4	
Asian garatzeko bidean dauden ekonomiak	8,1	6,6	6,5	4,5	1,6	1,1	-
Txina	9,3	7,8	5,4	2,6	2,8	2,6	4,1
India	7,7	4,0	8,9	9,3	-3,4	-5,1	-
Latinoamerika eta Karibe	4,5	3,0	6,6	6,0	-1,3	-1,7	-
Argentina	-	1,9	9,8	10,0	-0,4	0,1	7,2
Brasil	2,7	0,9	6,6	5,4	-2,1	-2,3	5,5
Mexiko	3,9	3,9	3,4	4,1	-0,8	-0,8	4,8
Hego Amerika	-	2,6	-	6,8	-	-1,7	-
Erdialdeko Amerika	-	4,8	-	4,5	-	-6,6	-
Karibe	-	2,4	-	5,1	-	-4,5	-
Europako goranzko ekonomiak (Erdialdeko eta Ekialdeko Europa)	5,2	1,6	5,3	5,8	-6,3	-4,3	-
Turkia	8,5	2,6	6,5	8,9	-9,7	-5,9	9,2
Polonia	4,3	2,0	4,3	3,7	-4,9	-3,6	10,3
Errumania	2,2	0,3	5,8	3,3	-4,5	-3,8	7,0
Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herrialde + 1)	4,8	3,4	10,1	6,5	4,5	3,2	-
Errusia	4,3	3,4	8,4	5,1	5,2	4,0	6,0
Errusia alde batera utzita	6,1	3,3	14,1	9,9	2,3	0,6	-
Energia esportatzaile garbiak	-	3,8	-	5,2	-	4,5	-
Energia inportatzaile garbiak	-	1,2	-	13,5	-	-7,3	-
Afrika azpisahararra	5,3	4,8	9,3	9,1	-1,4	-2,8	-
Petrolio esportatzaileak	-	6,5	-	10,9	-	6,5	-
Sarrera ertaineko ekonomiak	-	3,6	-	5,6	-	-6,1	-
Sarrera txikiko ekonomiak	-	4,6	-	12,7	-	-11,5	-
Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika	-	4,8	-	10,7	-	12,5	-
Petrolio esportatzaileak	-	5,7	-	11,3	-	16,6	-
Petrolio inportatzaileak	-	1,9	-	8,7	-	-7,7	-

Ekonomia aurreratuak (34 herrialde): AEB, Kanada, Japonia, Euroaren Eremua, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda B., Suitza eta Asiako ekonomia industrializatu berriak. Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herrialde + 1): Sobietar errepublika ohiak, 13 Mongolia sartuz gero
Iturria: NDFren "Munduko ekonomiaren aurreikuspenak" (2013ko apirila)

Afrika azpisahararra.

Kontsumoaren barneko sustapenak eta sektore pribatuko inbertsioak zein esportazioek neurri handian indartuta, Afrika azpisahararrak % 4,8ko hazkundera izan zuen 2012an, 2009an denbora labur-laburrean bakarrik eten zen hedatzeko joera luzeari eutsita.

Dena den, 2011ren aldean, Hego Sudango petrolio esportazioen etenak eta Mali eta Ginea Bissauko gatazka zibilek hazkunde-tasa orokorra ukitu zuten.

Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea (EEAI)

Ekialde Ertaineko eta Afrikako iparraldeko jarduera ekonomikoak emaitza mistoak izan zituen 2012an berriro ere. Petrolio esportatzaileak diren eskualdeko herrialde gehienak erritmo handietan hazi baziren ere, hazkunde ekonomikoak geldoa izaten jarraitu zuen petrolio inportatzaileak diren herrialdeetan, askotan trantsizio politikoetan murgilduta baitzeuden.

Horrela, petrolio esportatzaileak diren herrialdeek 2012an % 5,7ko hazkunde handia izan zuten, batez ere Libiako petrolio ekoizpenaren ia berrezarpen osoagatik eta Persiako Golkoko Lankidetzaren Kontseiluko herrialdeetako hedapen handiengatik.

Horrez gain, petrolio inportatzaileak diren herrialdeetan 2012an hazkundera % 2 ingurukoa izan zen, hainbat faktorek geldiarazten jarraitzen zutela, adibidez: etengabeko ziurgabetasun politikoa eta tirabira sozialeko gertaerak, trantsizioan murgilduta zeuden Arabiako hainbat herrialdetan; eskualde mailako kutsadura efektu garrantzitsuak, Siriako gatazka larriagotzearen ondorioz; Europako merkataritza-bazkideen kanpoko eskari ahula; eta lehengaien garestitasun iraunkorra (bereziki elikagaiak eta erregaiak). Horren ondorioz, ondasunen esportazioak eta atzerriko zuzeneko inbertsioko fluxuak (AZI) murriztu dira, turismoko fluxuak 2010eko mailaren azpitik daude (baita Egipton eta Libanon ere), eta langabezia herrialde askotan handitu da. Aldi berean, inflazioa neurritzkoa izan da oro har, eskari ahula dela-eta.

2.3. EUROPAR BATASUNA. EUROAREN EREMUA

Balioespen ofizialen arabera, Euroaren Eremuko BPGd-a berriro jaitsi zen 2012ko laugarren

hiruhilekoan, 2011ko udan eremua atzeraldian berriro sartu zenetik uzkurdua ekonomikoaren ondoz ondoko sei hiruhileko egon direla. Urte artean BPGd-aren aldakuntza errealeko tasa 2012an % -0,5ekoa izan zen, aurreko urteko % 1,5eko hazkunderaren aurrean.

Eskariaren ikuspuntutik, uzkurdua handiagoa egon da 2012an, 2011ren aldean. Izan ere, bai inbertsiokak bai kontsumo pribatuak aldakuntza-tasa negatiboak izan dituzte: KFEGd-ak % -3,9 izan du, aurreko aldiko % 1,6ko hazkunderaren aurrean; kontsumo pribatuak, aldiz, % 1,2 egin du atzera, urtebete lehenago izandako % 0,1eko gehikuntzaren aldean. Horrez gain, kontsumo publikoak bere aldakuntza-tasa negatiboari eutsi dio % -0,1en. Nabarmena da inbertsioa urtean zehar pixkanaka-pixkanaka murriztu izana lehenengo hiruhilekoko % -2,5etik laugarreneko % -4,9ra.

Kanpoko sektoreari dagokionez, esportazioak % 2,9 handitu dira, aurreko urteko % 6,5eko hazkunderaren aurrean, eta nabarmena da inportazioen jaitsiera (% -0,9%), aurreko aldiko % 4,4ko hazkunderaren aurrean.

II.1.3. KOADROA. EUROAREN EREMUKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

	2011	2012	2011		2012			
			III	IV	I	II	III	IV
<i>Urte arteko aldakuntza-tasak (q/q-4) Serie desestazonalizatuak</i>								
Merkatuko prezioetako BPGd-a	1,5	-0,5	1,3	0,6	-0,1	-0,5	-0,7	-0,9
BARNEKO ESKARIA	0,6	-2,2	0,4	-0,7	-1,7	-2,3	-2,5	-2,2
Gastua azken kontsumo pribatuan	0,1	-1,2	0,3	-0,9	-1,1	-1,1	-1,5	-1,2
Gastua azken kontsumo publikoan	-0,1	-0,1	-0,4	-0,3	0,1	-0,1	-0,1	-0,2
KFEGd-a	1,6	-3,9	0,8	0,8	-2,5	-3,9	-4,4	-4,9
KANPOKO ESKARIA								
Esportazioak	6,5	2,9	5,7	3,6	2,5	3,6	3,2	2,2
Inportazioak	4,4	-0,9	3,6	0,6	-1,1	-0,7	-1,0	-0,6
BEGd erreala								
Nekazaritza	2,0	-1,1	-	2,6	0,4	-0,7	-2,2	-2,0
Industria	3,4	-1,3	-	0,1	-1,1	-1,2	-1,2	-1,6
Eraikuntza	-0,8	-3,9	-	0,5	-3,5	-3,8	-3,8	-4,7
Merkatuko zerbitzuak	1,3	0,1	-	1,1	0,6	0,2	-0,1	-0,2
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA								
Enplegua (urte arteko aldakuntza-tasa)	0,3	-0,6	-	-0,1	-0,4	-0,7	-0,6	-0,7
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren gaineko %)	10,2	11,4	-	10,6	10,9	11,3	11,5	11,8
PREZIOAK, LAN-KOSTUAK ETA PRODUKTIBITATEA. Urte arteko aldakuntza-tasak								
KPIH	2,7	2,5	-	2,9	2,7	2,5	2,5	2,3
Soldatapeko bakoitzeko lansaria	2,2	1,8	-	2,3	2,0	1,8	1,9	1,4
Lan-produktibitatea	1,2	0,0	-	0,7	0,3	0,3	-0,1	-0,2

Iturria: Espainiako Bankua (Estatistikak, Adierazleen laburpena. Euroaren Eremua. Adierazle ekonomiko orokorrak)

Sektoreen ikuspuntutik, osagai guztiek atzerapena izan dute; gainera, industriari eta nekazaritzan hain atzerapen handiak izan dira, non haien aldakuntza-tasak negatibo bihurtu diren (eraikuntzak aldakuntza-tasa negatiboa izan zuen 2011n, eta haren jaitziera larriagotu egin da 2012an). Oso nabarmena da industriaren joeran antzemandako aldaketa: 2011ko %3,4ko aldakuntza-tasa positibotik 2012ko % -1,3ko aldakuntza-tasa negatibora igaro da. Zerbitzuen sektoreari dagokionez, merkatuko zerbitzuen arlo zehatzean haren urteko batez besteko aldakuntza-tasa positiboa (%0,1) bada ere, hiruhilekoko profilak dezelerazio argia agertu du, azken bi hiruhilekoetan

aldakuntza-tasa negatiboak egotea ekarri duena: % -0,1 eta % -0,2, hurrenez hurren.

Enplegua suspertzen hasi zen 2010aren amaieran, baina bere hazkundera moteldu zuen 2011n; gauzak horrela, urtearen amaieran aldakuntza-tasa negatiboak izan zituen, 2012 osoan ere agertu direnak. Horrela, enplegua %0,6 txikiagotu da 2012an. Horrez gain, 2012 osorako langabezia-tasa %11,4koa izan da, hau da, aurreko aldiko tasa baino %, 1,2 puntu portzentual handiagoa.

II.1.4. KOADROA. EUOPAR BATASUNAREN BILAKAERA EKONOMIKOA

	Biztanle bakoitzeko BPGd-a (1)		BPGd errealearen hazkundera			Langabezia-tasa (2)		Enpleguaren hazkundera (%) (3)		Inflazioa (KPIB) (urteko batezbestekoak)		Produktibitatea langileko (aurreko urtearen aldeko aldaketaren %)		Aldakuntzaren %. Lan-kostuaren indizea (balio izendatua) (4)	
	2010	2011	2011	2012	2013 (aurk.)	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
27ko EB	100	100	1,6	-0,3	0,1	9,7	10,5	0,3	-0,4	3,1	2,6	1,3	0,1	2,6	2,1
Euroaren Eremua (17)	108	108	1,4	-0,6	-0,3	-	-	0,3	-0,6	2,7	2,5	1,2	0,0	2,7	2,0
Belgika	119	119	1,8	-0,2	0,2	7,2	7,6	1,4	0,2	3,4	2,6	0,4	-0,4	2,8	2,9
Bulgaria	44	46	1,8	0,8	1,4	11,3	12,3	-3,4	-4,3	3,4	2,4	5,4	5,4	10,7	6,4
Txekiar Errepublikak	80	80	1,9	-1,3	0	6,7	7,0	0,3	0,4	2,1	3,5	1,6	-1,7	3,8	2,8
Danimarka	128	125	1,1	-0,6	1,1	7,6	7,5	-0,4	-0,5	2,7	2,4	1,5	-0,1	2,8	1,5
Alemania	119	121	3,0	0,7	0,5	5,9	5,5	1,4	1,1	2,5	2,1	1,6	-0,4	3,0	2,8
Estonia	63	67	8,3	3,2	3	12,5	10,2	7	2,1	5,1	4,2	1,2	1,0	4,9	6,4
Irlanda	129	129	1,4	0,9	1,1	14,7	14,7	-1,8	-0,6	1,2	1,9	3,3	1,5	-1,1	1,9
Grezia	87	79	-7,1	-6,4	-4,4	17,7	24,3	-5,6	-8,3	3,1	1,0	-1,6	2,1	-5,7	:
Espainia	99	98	0,4	-1,4	-1,4	21,7	25,0	-1,5	-4,2	3,1	2,4	2,0	2,9	2,7	1,1
Frantzia	108	108	1,7	0	0,1	9,6	10,2	0,6	0	2,3	2,2	1,2	0,1	3,4	1,9
Italia	101	100	0,4	-2,4	-1	8,4	10,7	0,3	-0,3	2,9	3,3	0,1	-2,1	2,2	1,7
Zipre	97	94	0,5	-2,4	-3,5	7,9	11,9	0,4	-4,1	3,5	3,1	0,1	1,7	1,7	1,2
Letonia	54	58	5,5	5,6	3,8	16,2	14,9	-8,1	2,6	4,2	2,3	14,8	2,9	3,4	4,0
Lituania	57	66	5,9	3,6	3,1	15,3	13,3	2	-6,7	4,1	3,2	3,8	11,1	2,7	4,9
Luxemburg	267	271	1,7	0,3	0,5	4,8	5,1	-	-	3,7	2,9	-1,2	-1,9	3,2	2,2
Hungaria	65	66	1,6	-1,7	-0,1	10,9	10,9	0,4	0,1	3,9	5,7	1,2	-1,8	5,6	5,9
Malta	85	85	1,7	0,8	1,5	6,5	6,4	2,7	2,1	2,5	3,2	-1,0	-1,2	0,1	1,0
Holanda	131	131	1	-1	-0,6	4,4	5,3	0,7	-0,1	2,5	2,8	0,3	-0,8	2,3	0,7
Austria	127	129	2,7	0,8	0,7	4,2	4,3	1,7	1,1	3,6	2,6	1,0	-0,3	3,6	4,4
Polonia	63	64	4,5	1,9	1,2	9,7	10,1	1	-1,6	3,9	3,7	3,5	3,5	4,4	3,1
Portugal	80	77	-1,6	-3,2	-1,9	12,9	15,9	-1,5	-4,2	3,6	2,8	0,0	1,1	-0,3	-
Errumania	47	49	2,2	0,7	1,6	7,4	7	-1,1	1,9	5,8	3,4	3,3	-1,2	6,6	6,2
Eslovenia	84	84	0,6	-2,3	-2	8,2	8,9	-1,6	-1,3	2,1	2,8	2,2	-1,1	2,1	0,6
Eslovakia	73	73	3,2	2	1,1	13,6	14	1,8	0,1	4,1	3,7	1,4	2,0	5,5	2,1
Finlandia	113	114	2,8	-0,2	0,3	7,8	7,7	1,1	0,3	3,3	3,2	1,7	-0,5	2,5	4,1
Suedia	124	127	3,7	0,8	1,3	7,8	8	2,3	0,7	1,4	0,9	1,4	0,1	2,7	3,5
Erresuma Batua	111	109	1	0,3	0,9	8	7,9	0,5	-	4,5	2,8	0,6	-0,5	1,9	1,8

(1) EAPn. 27ko EB=100 (2) 15 eta 74 urte artean. (3) Urteko aldakuntza-tasa biztanleria landun osoan (4) Industria eta Zerbitzuak (Administrazio Publikoa eta Komunitaterako Zerbitzuak izan ezik). Iturria: Eurostat

II.1.5. KOADROA. FINANTZA PUBLIKOAK EB-N

	Gobernuak BPGd-aren gainean duen zor publikoaren %		BPGd-aren gaineko defizit/superabit publikoaren % (moneta nazionaletan)	
	2011	2012	2011	2012
27ko EB	82,5	85,3	-4,4	-4,0
Euroaren Eremua (17)	87,3	90,6	-4,2	-3,7
Belgika	97,8	99,6	-3,7	-3,9
Bulgaria	16,3	18,5	-2,1	-0,8
Txekiar Errepublika	40,8	45,8	-3,3	-4,4
Danimarka	46,4	45,8	-1,8	-4,0
Alemania	80,4	81,9	-0,8	0,2
Estonia	6,2	10,1	1,2	-0,3
Irlanda	106,4	117,6	-13,4	-7,6
Grezia	170,3	156,9	-9,5	-10,0
Espainia	69,3	84,2	-9,4	-10,6
Frantzia	85,8	90,2	-5,3	-4,8
Italia	120,8	127,0	-3,8	-3,0
Zipre	71,1	85,8	-6,3	-6,3
Letonia	41,9	40,7	-3,6	-1,2
Lituania	38,5	40,7	-5,5	-3,2
Luxemburg	18,3	20,8	-0,2	-0,8
Hungaria	81,4	79,2	4,3	-1,9
Malta	70,3	72,1	-2,8	-3,3
Holanda	65,5	71,2	-4,5	-4,1
Austria	72,5	73,4	-2,5	-2,5
Polonia	56,2	55,6	-5,0	-3,9
Portugal	108,3	123,6	-4,4	-6,4
Errumania	34,7	37,8	-5,6	-2,9
Eslovenia	46,9	54,1	-6,4	-4,0
Eslovakia	43,3	52,1	-5,1	-4,3
Finlandia	49,0	53,0	-0,8	-1,9
Suedia	38,4	38,2	0,2	-0,5
Erresuma Batua	85,5	90,0	-7,8	-6,3

Iturria: Eurostat

KPIBk neurtutako inflazio orokorra % 2,5 hazi zen 2012an batez beste, 2011ko hazkundera % 2,7koa izan zela.

Jarduera ekonomikoak behera egitearen ondorio gisa, eta enplegua suntsitu izana gorabehera, lanaren ekoizkortasunaren abiadura moteldu egin zen aurreko urtekoarekin erkatuta, % 1,2ko tasatik hutsera igaro baitzen.

Jarduera ekonomikoaren jaitzieraren ondorioz eta lana suntsitu bazen ere, lanaren produktibitatea aurreko urtearen aldean moteldu zen: % 1,3tik tasa nulura pasatu zen. EUROSTATen arabera, estatu kide guztien egoera honako hau da: 15eko EBren baitan ikus daitekeenez, 2010ean honakoak izan dira, EAPen³ arabera neurtuta, Euroaren Eremuko batez bestekoa

(108) baino askoz per capita BPGd handiagoa izan duten herrialdeak (MSEko kapitulu hau amaitzerakoan ez zegoen datu berriagorik): Luxemburg (271), Holanda (131), Austria eta Irlanda (biak 129), Suedia (127), Danimarka (125), Alemania (121), Belgika (119), Finlandia (114) eta Erresuma Batua (109). Batezbestekoaren parean Frantzia (108) dago, eta horren azpitik Italia (100), Espainia (98), Grezia (79) eta Portugal (77).

27ko Ebren BPGd-aren aldakuntza-tasa erreala % -0,3koa izan zen 2012an. Hazkunde-tasa handienak Letonian (% 5,6), Lituanian (% 3,6), Estonian (% 3,2), Eslovakian (% 2) eta Polonian (% 1,9) egon dira.

Honako hauek tasa neurritsuagoak izan dituzte: Irlanda (% 0,9), Suedia, Austria, Malta eta Bulgaria (laurak % 0,8), Errumania eta Alemania (biak % 0,7), eta Erresuma Batua eta Luxemburg (biak % 0,3). Frantziak aldakuntza-tasa nulua izan du, eta Europako gainerako estatuek tasa negatiboak izan dituzte, jaitziera handiena Grezian egon dela (% -6,4).

Lan-merkatuan langabezia-tasak bi digitutik gorako zifrak ditu hainbat estatutan. Izan ere, honako hauek % 10 eta % 12 arteko tasak dituzte: Polonia, Estonia, Frantzia, Italia, Hungaria eta Zipre. % 12 eta % 15 artekoak: Bulgaria, Lituania, Eslovakia, Irlanda eta Letonia. Eta % 15etik gorakoak, 27ko Ebko langabezia-tasa handienak izanda: Portugal (% 15,9), Grezia (% 24,3) eta Espainia (% 25). Tasa txikienak, aldiz, honako estatu hauetan daude: Austria (% 4,3), Luxemburg (% 5,1), Holanda (% 5,3) eta Alemania (% 5,5).

Estatu zehatz batzuetan egondako lan suntsidura handienak produktibitatearen gehikuntzak Lituanian (% 11,1), Bulgarian (% 5,4), Polonian (% 3,5), Letonian eta Espainian (biak % 2,9), Grezian (% 2,1) eta Eslovakian (% 2) handiak izatea ekarri du, Europako batezbestekoaren aldean. 27ko Ebko batez bestekoa % 0,1ekoa izan da, eta 17ko Euroaren Eremuko, aldiz, % 0koa.

Horrez gain, aurretik aipatu denez, Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren arabera, urteko batez besteko inflazioa % 2,5ekoa izan da Euroaren Eremuan, aurreko urteko ratioak baino 2 hamarren portzental gutxiago izanda.

³ Eroste ahalmeneren parekotasuna

Finantza publikoei dagokienez, Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren xedapenen arabera, estatu kideek bi irizpide errespetatzeko konpromisoa hartu dute: % 3ko defizita/BPGd-a ratioa eta % 60ko zorra/BPGd-a ratioa.

Estatu kide batek defiziterako gehieneko muga gainditzen badu, gehiegizko defizita dagoenean aplikatu beharreko prozedura (GDP⁴) abiarazten da; hori kalkulatzeko ez dira kontuan hartzen finantza sektorerako laguntzak⁵.

EUROSTATen datuen arabera, 2012an BPGd-aren gaineko zor publikoa estatu guztietan handitu da, Danimarkan, Grezian, Letonian, Hungarian, Polonia eta Suedian izan ezik. Egonkortasun Itunean ezarritako % 60ko muga honako estatu hauetan gainditu da: Belgika (% 99,6), Alemania (% 81,9), Irlanda (% 117,6), Grezia (% 156,9), Espainia (% 84,2), Frantzia (% 90,2), Italia (% 127), Zipre (% 85,8), Hungaria (% 79,2), Malta (% 72,1), Holanda (% 71,2), Austria (% 73,4), Portugal (% 123,6) eta Erresuma Batua (% 90). Euroaren Eremu osoan, BPGd-aren gaineko zor publikoa % 90,6koa izan zen.

Defizitari dagokionez, Egonkortasun eta Hazkunde Itunean BPGd-rako ezarritako % 3ko muga gainditu ez duten estatu bakarrak honako hauek izan dira: Alemania (% 0,2, superabita izan duen estatu bakarra dela), Estonia (% -0,3), Suedia (% -0,5), Bulgaria eta Luxemburg (biak % -0,8), Letonia (% -1,2), Finlandia eta

⁴ Prozedura horrek hainbat aldi (zehapenen ezarpena barne) barne hartzen ditu, ukitutako estatu kidea egoera zuzentzeko neurriak hartzera bultzatzeko.

⁵ GDPk irizpideak, egutegiak eta epeak ezartzen ditu, ECOFIN Kontseiluak gehiegizko defizita egoteari buruzko erabakia har dezan. Ez da abiarazten gehiegizko defizitaren prozedura, defizit publikoak BPGd-aren % 3ren gainean duen soberakina aldi baterakotzat eta ohiz kanpokotzat jotzen denean eta defizita muga horretatik hurbil dagoenean.

Kontseiluak adierazten badu defizita gehiegizkoa dela, gomendioa egiten dio ukitutako estatu kideari, eta neurri zuzentzaile eraginkorrak hartzeko epea ezartzen du.

⁵ Euroaren Eremuko herrialdeen zor publikoari buruzko ziurgabetasuna 2010aren hasieran sortu zen, Greziako bonuak gehienbat eraginda. Hala ere, egoera berehala kutsatu zitzaizen zerga egoera zailagoa eta hazkunde txikiagoa zituzten herrialdeei (Portugal, Italia, Irlanda, Grezia eta Espainia). Horrela, zor subiranoaren interes-tasak izugarri igo ziren, diferentzialak eta arrisku-prima errekor mailetara helduta, Alemaniako zorraren interes-tasekin batera.

Arrisku subiranoaren eta banku arriskuaren atzeraelikadura kentzeko eta finantza merkatuak Euroaren Eremu osoan egonkortzeko onetsitako finantza neurriak 2010eko maiatzean abiarazi ziren, Greziarako lehenengo finantza erreskatearen bidez, eta 2011 eta 2012 bitartean ere erabili dira (2010eko azaroa: Irlanda; 2011ko maiatza: Portugal; 2011ko urria: Grezia berriro; eta 2012ko ekaina: Espainia).

Hungaria (biak % -1,9), Luxemburg (% -0,6), Austria (% -2,5), Errumania (% -2,9) eta Italia (% -3). Euroaren Eremu osoan, defizit publikoa BPGd-aren % 3,7ko maila baliokidean kokatu zen.

Defizit handienak honako estatu hauetan egon dira: Espainia (% 10,6), Grezia (% 10), Irlanda (% 7,6), Portugal (% 6,4), eta Erresuma Batua eta Zipre (biak % 6,3).

Espainiari dagokionez, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren datuen arabera, finantza sistamarako laguntzak (38.343 milioi euro) kontuan hartzen ez dituen defizita BPGd-aren % 6,98koa izan da.

2.4. ESPAINIAKO EKONOMIA

Espainiako ekonomiak bere uzkurdua joera areagotu zuen 2012ko laugarren hiruhilekoan. 2013ko otsailean argitaratu diren EInen Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren (HKN) datuen arabera, Espainiako ekonomiaren BPGd erreala, egutegia eta urtarokotasuna zuzendu dituen, % 0,8 jaitsi zen 2012ko laugarren hiruhilekoan hiruhileko artean eta % 1,9, aldiz, urte artean; jaitziera horiek aurreko hiruhilekokoak baino puntu erdi eta hiru hamarren handiagoak izan dira, hurrenez hurren. Horrela, 2012aren amaieran BPGd-aren urteko beherakada % 1,4koa izan zen, aurreko urtean % 0,4ko hazkundera izan bazuen ere.

Bilakaera hori eskari nazionala BPGd-aren urte arteko hazkundetik neurri handiagoan aldenitu izanaren emaitza da (laugarren hiruhilekoko 4,7 pp, hirugarren hiruhilekoko 4 pp-ren aurrean); kanpoko eskari garbia, berriz, lau hamarren handitu da (hirugarren hiruhilekoko 2,4 pp-tik laugarren hiruhilekoko 2,8 pp-ra), inportazioen atzerakada erritmo biziagoaren ondorioz; horrek esportazioak moteldu izana konpentsatu du.

Horrela, eskari nazionalak 3,9 puntu portzentual kendu dizkio BPGd-aren 2012ko urte arteko hazkunderari, baina kanpoko eskariak 2,5 puntu portzentual eman dizkio.

Eskariaren ikuspuntutik, barneko eskariaren ahultasun handiagoa haren osagaien guztien uzkurdua joerak azaltzen du urte artean. Kontsumo publikoak

BIGARREN AURRERAPENA

bere uzkurdura joera luzatu du: % -0,5etik % -3,7ra 2001 eta 2012 bitartean. Etxeen azken kontsumoaren gastuak % 2,5eko beherakada izan du 2011ko % -0,8ren aurrean. Kontsumo pribatuaren portaera azaltzen duten faktore nagusien artean lanaren suntsidura handiagoa, familien errenta erabilgarriaren murrizketa eta erosketen aurrerapenaren itzulketa (irailaren 1ean indarrean sartu ziren BEZ tasen gehikuntzaren ondorioz) daude. Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEgD) bere uzkurdura areagotu zuen (% -5,3tik % -9,1era), haren osagai nagusia den eraikuntzaren atzerakada handiaren eta ekipamendu-ondasunen eta aktibo landuen zein aktibo finko immaterialen beherazko flexioaren ondorioz.

Bestalde, aurretik aipatu bezala, kanpoko eskariak BPGd-aren hazkundeari egindako ekarpena positiboa

izan zen (2,5 puntu). Dena den, nabarmena da 2011 eta 2012 bitartean esportazioek % 3,1eko batez besteko urte arteko hazkundera (aurreko urteko % 7,6ren azpitik, beraz) izatea eta inportazioak aurreko urtean baino neurri handiagoan txikiagotzea (% -5, % -0,9ren aurrean).

Eskaintzaren ikuspuntutik, BPGd-aren 2012ko urte arteko beherakada ekoizpen-adar guztien jardueran islatu zen, lehen sektorean izan ezik. Izan ere, haren balio erantsi gordina (BEGd) % 2,2 handitu zen, hau da, aurreko urtean baino sei puntu portzentual gutxiago. Industriaren BEGd-ak % 2,9 egin zuen atzera, aurreko urtean % 2,7 handitu arren; eraikuntzak % 8,1eko beherakada izan zuen (% -5,9 aurreko aldian); eta zerbitzuen sektoreak % -0,4ko tasa izan zuen, aurreko urtean % 1,4 handitu ondoren.

II.1.6. KOADROA ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA. 2008KO OINARRIA⁶ Urte arteko aldakuntza-tasak. Kateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak

	2011	2012	2011				2012			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Barneko eskaria (*)	-1,9	-3,9	-0,9	-1,8	-1,8	-3,1	-3,1	-3,8	-4,0	-4,7
Gastua azken kontsumoan	-0,8	-2,5	0,6	-0,8	-1,0	-2,1	-2,0	-2,3	-2,6	-3,3
Etxeen kontsumo pribatua	-0,8	-2,2	0,2	-0,9	-0,2	-2,4	-1,3	-2,2	-2,1	-3,0
Kontsumo publikoa	-0,5	-3,7	2,2	-0,5	-2,7	-1,1	-3,8	-2,8	-4,0	-4,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	-5,3	-9,1	-6,0	-4,9	-4,2	-6,0	-7,4	-9,2	-9,7	-10,3
- Aktibo finko materialak	-5,8	-10,0	-6,7	-5,4	-4,7	-6,6	-8,1	-10,0	-10,7	-11,0
• Eraikuntza	-9,0	-11,5	-10,8	-8,5	-8,0	-8,6	-9,5	-11,6	-12,4	-12,3
• Ekipamendu-ondasunak eta aktibo landuak	2,3	-6,6	4,9	2,9	3,5	-1,7	-5,1	-6,4	-7,0	-7,9
- Aktibo finko immaterialak	3,1	2,6	4,1	1,4	4,9	2,0	3,4	2,7	4,8	-0,5
Kanpoko eskaera										
Ondasunak eta zerbitzuak esportatzea	7,6	3,1	10,2	7,1	7,6	5,8	2,1	2,7	4,2	3,2
Ondasunak eta zerbitzuak inportatzea	-0,9	-5,0	4,5	-1,6	-1,2	-4,9	-5,9	-5,2	-3,4	-5,4
Merkatuko prezioetako BPGd-a	0,4	-1,4	0,5	0,5	0,6	0,0	-0,7	-1,4	-1,6	-1,9
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	8,2	2,2	8,1	8,2	8,7	7,8	2,5	2,2	2,4	1,9
Industria	2,7	-2,9	5,8	2,4	2,5	0,2	-3,2	-3,1	-2,9	-2,4
Eraikuntza	-5,9	-8,1	-8,6	-6,1	-4,3	-4,5	-7,5	-7,7	-8,9	-8,5
Zerbitzuak	1,4	-0,4	1,3	1,6	1,6	1,1	0,7	-0,3	-0,6	-1,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-5,5	-0,3	-4,7	-5,3	-6,0	-5,9	-0,4	-0,2	-0,2	-0,5
Lan-merkatua										
Lanaldi osoaren pareko lanpostuak										
Landunak	-1,7	-4,4	-1,4	-0,9	-1,6	-2,9	-3,7	-4,7	-4,6	-4,7
Soldatapekoak	-1,5	-5,1	-1,2	-0,7	-1,4	-2,6	-4,2	-5,2	-5,6	-5,6
16 urtekoen edo zaharragoen langabezia-tasa (BAI)	21,6	25,0	21,3	20,9	21,5	22,8	24,4	24,6	25,0	26,0
Langile bakoitzeko produktibitatea	2,2	3,2	1,9	1,5	2,3	2,9	3,1	3,5	3,1	2,9

(*) **Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.**

Iturria: EIN (Hiruhilekoko Kontabilitatea eta BAI) eta Espainiako Bankua. Adierazle ekonomiko orokorrak

⁶ *Espainako Kontabilitate Nazionalaren (EKN) 2008ko oinarri berriak dakarren berrikuntza teknologikoa jardueren eta produktuen sailkapenen aldaketa da; hórrela, oinarritzko eragiketa estatistikoez erabiltzen dituztenekin, bai estrukturalak bai koiunturalak, bateragarri egin dira. Gainera, sisteman aktibo finkoen sailkapen bat sartu da (produktuak sailkatu beharrean), kapital finkoaren formakuntza gordinaren datuen hedapenean eragina izango dutenak.*

Arauen aldaketa hori zeharlerroa da Europar Batasuneko estatu kide guztietan, Batzordearen 2010eko abuztuaren 10eko 715/2010 Araudia aplikatzearen ondorioz. Araudi horrek Kontseiluaren 2223/96 Araudia (CE) aldatu zuen, kontu nazionalen egokitzapenei dagokienez, jarduera ekonomikoaren nomenklatura estatistikoa berrikusi eta gero (NACE, rev. 2) eta produktuen jardueraren araberako sailkapen estatistikoa (PJS) berrikusi eta gero+.

II.1.7. KOADROA ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETA-BALANTZA (milioi euro)

	2010	2011bb	2012bb
BPGd bb	1.048.883	1.063.355	1.049.525
Finantziario gaitasuna/premia	-39.642	-33.943	-2.365
BPGd-aren gainean (%)	-3,8	-3,2	-0,2
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	-40.674	-34.316	-4.679
Kontu korrontea	-46.963	-39.787	-11.268
Ondasunak (merkataritza-balantza)	-48.173	-42.331	-25.800
Zerbitzuak (zerbitzuen balantza)	28.040	34.630	37.112
Errentak	-19.933	-25.712	-18.589
Transferentzia arruntak	-6.897	-6.374	-3.991
Kapital kontua	6.289	5.471	6.589
Finantza-saldoa	43.329	28.681	434
Guztira, Espainiako Bankua salbu	27.633	-80.459	-173.081
Inbertsio zuzena	1.532	-7.022	25.387
Zorroko inbertsioa	28.727	-27.547	-53.631
Bestelako inbertsioak	-11.232	-43.923	-153.277
Finantza-deribatuak	8.605	-1.967	8.439
Espainiako Bankua	15.696	109.141	173.515
Erreserbak	-814	-10.022	-2.211
Eurosistemari aurre egiteko aktibo garbiak	9.788	124.056	162.366
Bestelako aktibo garbiak	6.722	-4.893	13.361
Akatsak eta jaulkipenak	-2.655	5.635	4.245

bb: behin-behinekoa. Iturria: Espainiako Bankua. Adierazle ekonomikoak.

Jardueraren jaitsieraren azelerazio hori enpleguan ere gertatu da. Gauzak horrela, 2011. Urtean lanaldi osoan betetako lanpostu kopuru osoa % 1,7 murriztu bazen ere, 2012. Urtean % 4,4ko murriztapena zenbatu zen. Soldatapekoen beherakada % 5,1ekoa izan zen, aurreko urteko % 1,5en aurrean. Bestalde, EInen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du (16 urtetik gorako) langabezia-tasa % 21,6tik % 25era handitu dela.

BPGd-aren urte arteko beherakada handiagoaren ondorioz eta lanaren suntsidura handiagoa gorabehera, landun bakoitzeko itxurazko produktibitatea moteldu zen bigarren hiru hilekotik aurrera, baina, hala ere, areagotu egin zen 2011 eta 2012 bitartean.

Ordainketa-balantzari dagokionez, eta kanpoko sektoreak egindako ekarpen positiboarekin batera, Espainiako ekonomiak finantza egoera hobetu zuen munduko gainerako herrialdeen aldean. Ekonomiaren finantziario beharra (defizita) sortzen da, ekonomiaren

II.1.8. KOADROA. ORDAINKETA-BALANTZA

Kontu korrontearen balantza (KKB)
<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritzaren balantza (ondasunena) • Zerbitzuen balantza (turismoa eta beste batzuk) • Errenten balantza • Transferentzia arrunten balantza
Kapitalaren balantza (Kapital b.)
<ul style="list-style-type: none"> • Kapital-transferentziak (EGEF, Kohesio Funtsa...) • Finantza kanpoko aktibo ez produktiboak eskuratzea eta besterentzea (lurra, lur baliabideak, aktibo ukiezinak, egile eskubideak...) • Errenten balantza
Kanpoko aurrezki eskaera = Finantziario ahalmena (premia)
KKB + Kapitalaren balantza + Kanpoko egoiliarren inbertsioak.

Sektoreek sortu duten aurrezki nahikoa ez denean egindako inbertsioari aurre egiteko, eta kontu korrontearen balantzaren, kapitalaren balantzaren eta kanpoko egoiliarren inbertsioen balantzaren saldoak batuz kalkulatu da. 2011n BPGd-aren % 3,2koa zen, eta 2012an, berriz, % 0,2koa; horrek 2.365 milioi euro dakar, hau da, aurreko urtean baino 31.578 milioi gutxiago.

Espainiako Administrazio Publikoek 111.616 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu dute 2012. Urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2011 eta 2012 bitartean BPGd-a % 9,4tik % 10,6era igaro dela (finantza sektorerako laguntzak barne).

Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek, Tokiko Korporazioek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, % 7,8, % 1,8, % 0,1 eta % 1eko defizitarekin itxi zituzten beren kontuak.

Aurretik aipatu bezala, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren datuen arabera, estatuaren defizita BPGd-aren % 6,98koa izan da, finantza sektorerako laguntzak kontuan hartu gabe. Defizit horrek BPGd-aren 0,68 puntu portzentual (pp) desbideratzea dakar berrikusitako helburuaren aldean (% 6,3koa zen).

Diru-sarrerei dagokienez, zerga nagusien bilketa % 4,3 handitu zen 2012an (Autonomia Erkidegoen eta Tokiko Korporazioen ekarpenak ere kontuan hartuta). Gehikuntza hori bai zuzeneko zergen (% +7,3, bertan PFEZ % 1,2, Sozietateena % 29 eta "Bestelakoak" partida % 26,6 handitu direla) bai zeharkako zergen (% +0,5) gehikuntzatik sortzen da. Hala ere, kasu horretan BEZa % 2,4 handitu da, baina bereziak % 4 txikitu dira, eta "Bestelakoak" partida % 1,5 jaitsi da.

BIGARREN AURRERAPENA

II.1.9. KOADROA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA* (milioi euro)

	Milioi €				BPGd-aren %				
	2009	2010	2011bb	2012a	2009	2010	2011 bb	2012a	2012ko helburua**
Herri Administrazioak Finantziario gaitasuna (+) / premia (-), EKNren arabera*	-117.098	-101.469	-100.440	-111.616	-11,2	-9,7	-9,4	-10,6	-6,3
Administrazio Zentralak									
Administrazio Zentrala (Estatua eta erakunde autonomoak)	-97.991	-52.896	-36.619	-81.511	-9,3	-5,0	-3,4	-7,8	-3,5***
Gizarte Segurantzak	8.096	-1.934	-773	-10.131	0,8	-0,2	-0,1	-1,0	-1,0
Lurraldeko erakundeak									
AAEE	-21.343	-39.603	-54.057	-18.411	-2,0	-3,8	-5,1	-1,8	-1,5
Tokiko Korporazioak (TTKK)	-5.860	-7.036	-8.991	-1.563	-0,6	-0,7	-0,8	-0,1	-0,3

bb: behin-behinekoa; a: aurrerapena (*) Finantziario gaitasuna/premia Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera. ** Ez ditu barne hartzen finantza sistematikoko finantza baliabideak. *** Ez ditu barne hartzen 2009ko finantza sistematikoko likidazioak.

Iturria: Espainiako Bankua eta "Adierazle ekonomikoaren laburpena" (2013ko otsaila). Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa.

II.1.10. KOADROA. ESTATUKO ZERGA-BILKETA

(Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga berezietan egindako ekarpena barne) (milioi euro)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateak	Bestelakoak	Guztira	BEZ	Berezikiak	Bestelakoak	Estatua	AAEE eta TTKK	Guztira
2008	102.024	71.341	27.301	3.382	70.671	48.015	19.570	3.086	113.325	59.370	172.695
2009	87.521	63.857	20.188	3.476	55.662	33.573	19.349	2.739	82.761	60.422	143.183
2010	86.913	66.977	16.198	3.738	71.886	49.079	19.806	3.001	111.087	47.712	158.799
2011	89.641	69.803	16.611	3.227	71.241	49.302	18.974	2.965	88.026	72.855	160.881
2012	96.152	70.631	21.435	4.086	71.594	50.464	18.209	2.921	75.643	92.102	167.746
2010-11 bariazioa	3,1	4,2	2,5	-13,7	-0,9	0,5	-4,2	-1,2	-20,8	52,7	1,3
2011-12 bariazioa	7,3	1,2	29,0	26,6	0,5	2,4	-4,0	-1,5	-14,1	26,4	4,3

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Adierazle ekonomikoaren laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2013ko apirila

II.1.11. KOADROA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (milioi euro)

	Langileria	Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2008	25.384,7	4.553,9	15.929,0	84.217,7	18.164,2	10.675,7	158.925,1
2009	26.666,9	4.965,0	17.651,7	107.511,9	11.840,0	10.624,8	179.260,3
2010	26.991,4	4.451,9	19.641,1	102.697,4	13.662,7	8.069,7	175.514,2
2011	27.409,6	4.041,3	22.195,4	86.707,7	7.877,8	6.162,7	154.394,5
2012	26.743,6	3.528,9	26.059,0	85.405,4	4.657,8	7.194,6	153.589,3
2010-11 bariazioa	1,5	-9,2	13,0	-15,6	-42,3	-23,6	-12,0
2011-12 bariazioa	-2,4	-12,7	17,4	-1,5	-40,9	16,7	-0,5

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Adierazle ekonomikoaren laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2013ko apirila

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak % 0,5 txikitu dira. Murrizketa nabarmenena kapital-transferentzien kapituluari lotutakoa da (% -40,9); horren atzetan, ondasunen eta zerbitzuen erosketak (% -12,7%), eta langileria murrizketa (% -2,4) eta transferentzia arruntak (% -1,5) daude. Halaber,

nabarmena da interesak (% +17,4) eta inbertsioak (% +16,7, aurreko urtean % 23,6 jaitsi ondoren) handitzea.

2.5. AUTONOMIA ERKIDEGOAK

EINen Eskualdeko Kontabilitateari buruzko datu ofizialen arabera, 2012an BPGd-aren aldakuntza errearen estatuko batezbestekoa % -1,4koa izan zen. Sei autonomia erkidegok murrizketa txikiagoa izan zuten, baina 27ko Ebre gainetik (% -0,3): Balearrak (% -0,3, 27ko Ebre batezbestekoan), Galizia (% -0,9), Katalunia eta Kanariak (biak % -1), Madril eta Kantabria (biak % -1,3), eta Ceuta hiri autonomoa (% -1,1). Hona hemen erregistro txarrenak izan zituztenak: Gaztela-Mantxa (% -3), Asturias (% -2,5), Extremadura (% -2,2) eta Errioxa (% -2,1).

Per capita BPGd nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 30.829 euroko BPGd-arekin, estatuko batezbestekoa (22.772 euro) baino % 34,5 gehiago. Haren atzetik datoz Madril (29.385 euro per capita), Nafarroa, 29.071 euroko per capita BPGd-arekin, Katalunia (27.248 euro biztanleko), Aragoi

(25.540), Errioxa (25.508), eta Balear Uharteak (24.393). Beraz, horiek guztiak estatuko batezbestekoaren gainetik daude.

Kontrako egoeran daude Extremadura (15.394 euro), Andaluzia (16.960) eta Melilla (16.981). Lan-merkatuari dagokionez, estatu osorako langabezia-tasa % 25,2koa izan da 2012an. Tasa txikiak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek dira: EAE (% 15), Nafarroa (% 16,4), Kantabria (% 17,9), Aragoi (% 18,7) eta Madril (% 19,2). Estatuko batezbestekoaren gainetik daude Ceuta (% 38,8), Andaluzia (% 34,7), Kanariar Uharteak (% 33,3), Extremadura (% 33,1), Melilla (% 28,9), Gaztela-Mantxa (% 28,6), Murtzia (% 28) eta Valentziako Erkidegoa (% 27,8).

2012an lan galera handienak honako hauetan gertatu dira: Ceuta (% -10,9), Extremadura (% -9,2), Gaztela-Mantxa (% -7,7), Errioxa (% -6,5), Katalunia (% -6,2), EAE (% -6), Andaluzia (% -5,3) eta Asturias (% -4,6).

II.1.12. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO BPGd-aren HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASAK

	Landun pertsonen kopuruaren aldakuntza		Langabeen kopuruaren aldakuntza		Langabezia-tasa (16-64 urte)		BPGd bolumenaren aldakuntza		Per capita BPGd-a		
	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12	2010-11	2011-12	2011 a	2012 z	
									Estatua = 100	Estatua = 100	€ per capita
Guztira	-1,9	-4,5	7,9	15,4	21,8	25,2	0,4	-1,4	100	100	22.772
Andaluzia	-2,9	-5,3	9,1	14,7	30,5	34,7	0,0	-1,7	75,2	74,5	16.960
Aragoi	-2,3	-0,8	16,2	9,8	17,2	18,7	0,3	-1,5	111,8	112,2	25.540
Asturias	-2,4	-4,6	11,6	22,1	18,0	21,9	-0,1	-2,5	93,0	92,4	21.035
Balear U.	-2,1	0,9	7,1	8,8	22,0	23,3	1,6	-0,3	105,7	107,1	24.393
Kanariar U.	0,8	-3,5	5,8	12,5	29,9	33,3	1,7	-1,0	86,2	85,9	19.568
Kantabria	-1,2	-2,6	10,7	16,2	15,4	17,9	0,5	-1,3	98,4	98,1	22.341
Gaztela eta Leon	-1,3	-4,2	5,8	17,3	16,9	19,9	1,1	-1,8	97,5	97,9	22.289
Gaztela-Mantxa	-0,8	-7,7	11,0	23,5	23,0	28,6	-0,4	-3,0	78,7	77,7	17.698
Katalunia	-1,8	-6,2	8,4	15,3	19,4	22,8	0,6	-1,0	118,1	119,7	27.248
Valentziako Erkidegoa	-2,3	-4,5	4,3	12,6	24,6	27,8	-0,2	-1,5	88,0	87,7	19.964
Extremadura	-2,9	-9,2	8,7	33,8	25,2	33,1	-0,9	-2,2	68,4	67,6	15.394
Galizia	-1,6	-4,0	14,0	18,6	17,5	20,8	-0,1	-0,9	90,2	91,0	20.723
Madril	-2,0	-2,7	2,7	13,5	16,8	19,2	0,6	-1,3	129,5	129,0	29.385
Murtzia	-2,9	-2,7	8,6	10,4	25,5	28,0	0,0	-1,7	82,1	81,3	18.520
Nafarroa	-0,8	-4,2	9,9	24,7	13,0	16,4	1,4	-1,8	128,6	127,7	29.071
EAE	-0,8	-6,0	14,8	20,3	12,1	15,0	0,8	-1,4	134,7	135,4	30.829
Errioxa	-3,4	-6,5	18,8	17,7	17,1	20,6	0,9	-2,1	111,7	112,0	25.508
Ceuta	-3,6	-10,9	26,9	34,3	29,6	38,8	0,1	-1,1	86,5	84,9	19.335
Melilla	6,3	-2,1	10,1	21,1	24,5	28,9	-0,6	-1,5	78,4	74,6	16.981

a: aurrerapena. Z: zenbatespena

Iturria: EIN Eskualdeko kontabilitatea eta BAI

3. EAE-REN ABAGUNE EKONOMIKOA

3.1. EBOLUZIO OROKORRA

Euskal ekonomiak aurreko urteetako baino nabarmen hazkunde erreale txikiagoko tasarekin itxi zuen 2008. urtea (%1,3, eta aurreko urtekoa %4,2 izan zen EUSTATen datuen arabera). 2009. urtean, areagotu egin ziren ekoizpenaren jaitsierak, eta BPGaren aldakuntza tasa erreale negatiboa gertatu zen (%-3,9, 2008. urtekoarekin alderatuta). Harrezkero, jaitsierak ez dira hain handiak izan, eta 2010 eta 2011. urteetan, BPGaren urte arteko aldakuntza positiboak ageri dira, %0,4 eta %0,5 hurrenez hurren.

Alabaina, Hiruhileko Kontu Ekonomikoen –HKE– arabera (2013ko otsailean argitaratuak), hazkunde txikiagoa izan dute (%0,6tik %0,2ra lehen eta laugarren hiruhilekoaren artean) hiruhileko aldakuntza-tasek 2011. urtean, eta negatibo bihurtu dira 2012an. Hala, 2012ko lehen hiruhilekoan %-0,4ko aldakuntza tasa hasi zen lehen hiruhilekoan eta %-1,7ko tasa bukatu zen laugarrena.


Hala, EAEko ekonomiak 2012an %1,2ko jaitsiera izan du, kopuru errealetan, EUSTATen arabera; eta haren prezio arrunteko BPG 66.223 milioi eurokoa da (EINen Eskualde Kontabilitateak %-1,4ko aldakuntza-tasa erreala (urte artekoa) erregistratu du euskal ekonomiarako. Zenbatespen hori urruti dago EUSTATEk eskainitako balioetatik).

Espainiako ekonomiako BPGak, bestalde, %-1,4ko batez besteko urteko aldakuntza-tasa eduki du kopuru errealetan, eta aurreko urtean % 0,4ko hazkunde erregistratu zen.

EB-27an %0,3ko jaitsiera izan da EUROSTATen arabera; 17ko euro gunean, berriz, %-0,6koa izan zen. Ondorioz, ekoizpenaren jaitsiera handiagoa da EAE euro gunean eta EB-27an baino; eta EINen arabera, estatuko batez bestekoaren berdina.


2012. urtean izandako hiruhileko arteko tasak aztertuz gero, ikus liteke BPGak behera egin duela: lehen hiruhilekoan %-0,7ko aldakuntza-tasa izan badu ere, laugarrenean %-1,8koa izan du.

II.2.1. GRAFIKOA. EAE-REN BPG. ALDAKUNTZA TASAK BOLUMEN KATEATUAN



Iturria: EUSTAT. HKE

II.2.2. GRAFIKOA. BARNE ETA KANPO ESKARIAK BPG-AREN HAZKUNDEAN EGINDAKO EKARPENA



Iturria: EUSTAT. HKE (a: aurrerapena)

Eskariaren gaineko azterketak erakusten duenez, barne eskariaren %2,2ko jaitsiera erreala dago. BPGaren urte arteko beherakada, berriz, %1,2koa da. Horrek agerian uzten du kanpoko saldoaren ekarpen positiboa, hain zuzen ere %1ekoa, esportazioen (-%5,2) nahiz inportazioen (-%6,4) mailetan jaitsierak gertatu badira ere.

Estatuan, EINen datuen arabera, eskari nazionalaren ekarpena BPGaren hazkunderari -3,9 puntukoa izan zen, eta kanpo eskariarena +%2,5ekoa.

Barne eskariaren jaitsiera aurreko urtekoa baino askoz handiagoa izan da 2012an gure Erkidegoan (%-2,2, aurreko urteko %-0,3aren aldean), eta kontsumoak nahiz inbertsioak izan duten beherakadagatik gertatu da. Hala, kontsumo pribatuaren (-%1) eta publikoan (-%2,1) izandako gastuaren jaitsiera dela-eta, kontsumoak %1,2 egin du behera. Bestalde, kapitalaren eraketa gordinak eskariaren profilik negatiboena erakusten du; izan ere, %5,4ko jaitsiera izan da, %-4koa ekipo ondasunen inbertsioetan.

Prezio korranteetako BPGaren bilakaera aztertuta ondoriozta daitekeenez, jaitsi egin da ekipo ondasunen inbertsioa: 2005ean BPGaren %8,4tik %7ra 2012an. Bestalde, eraikuntza ondasunen inbertsioan, 2005eko %21,1etik %16,3ra 2011n.

II.2.1. KOADROA. EAE-REN EGOERA MAKROEKONOMIKOAREN EBOLUZIOA (Urte arteko aldakuntza-tasa)

	2007	2008	2009	2010	2011 (a)	2012 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala, merkatuko prezioetan	4,2	1,3	-3,9	0,4	0,5	-1,2	-0,4	-1,0	-1,5	-1,7
Eskaria										
Barne eskaria (hazkundera)	4,3	0,8	-5,4	-0,2	-0,3	-2,2	-1,4	-2,7	-2,3	-2,5
Barne eskariaren ekarpena (1)	4,6	0,9	-5,7	-0,2	-0,3	-2,3	-	-	-	-
Azken kontsumoko gastua	4,1	1,9	-1,7	1,1	0,2	-1,2	0,0	-1,7	-1,5	-1,6
Kontsumo pribatua	3,6	0,6	-3,6	0,8	0,3	-1,0	0,0	-1,4	-0,9	-1,6
Kontsumo publikoa	6,4	7,0	5,0	2,2	-0,1	-2,1	-0,2	-2,9	-3,4	-1,6
Kapitalaren Eratze Gordina (KEG)	4,1	1,9	-1,7	1,1	-1,8	-5,4	-5,5	-5,8	-4,9	-5,5
Ekipo-ondasunetako kapital finkoaren eratze gordina	9,3	-1,0	-23,2	-2,6	7,1	-4,0	-1,3	-4,0	-4,8	-5,8
Gainerako KEG	-	-	-	-	-5,1	-6,0	-7,1	-6,5	-5,0	-5,4
Kanpoko saldoaren ekarpena (1)	-0,3	0,5	0,3	0,9	0,9	1,0	-	-	-	-
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	5,4	-0,2	-13,4	7,7	5,5	-5,2	-2,6	-0,1	-8,1	-9,6
Estatuko gainerako autonomiak	0,1	-3,4	-9,9	2,4	-	-	-	-	-	-
Atzerria	12,0	3,4	-16,9	13,8	-	-	-	-	-	-
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	5,4	-0,8	-12,6	5,9	4,0	-6,4	-3,8	-2,7	-8,8	-10,2
Estatuko gainerako autonomiak	5,2	-0,6	-4,0	3,2	-	-	-	-	-	-
Atzerria	5,6	-1,2	-25,0	11,3	-	-	-	-	-	-
Eskaintza										
Lehen mailakoa	0,0	-6,1	-4,8	20,8	-1,9	5,9	12,8	3,9	-2,1	8,4
Industria eta energia	3,1	-0,7	-12,9	2,0	2,0	-2,4	-1,4	-2,4	-2,8	-3,1
Manufaktura industria	-	-	-	-	3,6	-2,1	-0,2	-2,3	-2,6	-3,2
Eraikuntza	11,1	-5,8	-7,4	-7,9	-5,9	-6,3	-6,3	-6,4	-6,1	-6,3
Zerbitzuak	4,0	3,4	0,0	0,7	0,8	-0,3	0,4	0,0	-0,6	-0,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	1,2	-2,8	0,4	0,0	-1,1	0,0	-1,0	-1,3	-2,0
Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	5,3	6,2	3,4	3,8	3,9	0,0	2,5	1,1	-1,5	-1,9
...Gainerako zerbitzuak	3,7	3,4	0,0	-0,8	-0,4	0,1	-0,4	0,0	0,4	0,3
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	4,4	1,2	-4,3	0,3	0,5	-1,2	-0,5	-1,1	-1,6	-1,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,8	2,4	-0,1	1,9	0,2	-0,3	0,7	-0,2	-0,5	-1,3
BPG nominala, merkatuko prezioetan	7,5	2,3	-5,2	1,8	1,8	-0,1	0,6	0,3	-0,7	-0,5

Aurrerapena

(1) BPGaren hazkunderako ekarpenen ehunekoak.

(2) Ez dago lanaldi osoko enpleguari buruzko informaziorik.

Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak (2013ko otsaila)

II.2.2. KOADROA. BPG-AREN AGREGATUEN EBOLUZIOA. ESKARIA (mila eurotan eta ratioak)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011(a)	2012 (a)
BPG: ESKARIA (mila eurotan eta ratioak)								
BARNE PRODUKTU GORDINA	56.884.948	61.353.909	65.962.032	67.478.054	63.988.786	65.120.174	66.264.502	66.223.349
BARNE ESKARIA								
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	42.796.181	46.173.237	49.376.152	51.322.850	50.639.505	51.780.691	52.826.737	52.864.878
- Etxeen azken kontsumoa eta ISFLSH	34.347.047	37.070.235	39.412.698	40.379.234	39.022.740	40.054.266	41.153.253	41.554.249
BPGaren gaineko portzent.	60,4	60,4	59,8	59,8	61,0	61,5	62,1	62,7
- AAPPen azken kontsumoko gastua	8.449.134	9.103.002	9.963.454	10.943.616	11.616.765	11.726.425	11.673.484	11.310.629
BPGaren gaineko portzent.	14,9	14,8	15,1	16,2	18,2	18,0	17,6	17,1
KAPITALAREN ERATZE GORDINA	17.390.045	19.114.369	20.706.415	20.838.703	17.485.687	16.695.047	16.544.784	15.725.172
- Kapital finkoko eratze gordina eta objektu baliotsuak	16.802.220	18.380.919	20.119.645	19.952.438	16.711.257	15.755.681	15.624.206	-
-- ekipo ondasunetan	4.781.067	5.241.527	5.458.795	5.431.571	4.220.971	4.386.290	4.790.530	4.646.814
BPGaren gaineko portz.	8,4	8,5	8,3	8,0	6,6	6,7	7,2	7,0
-- eraikuntza ondasunetan eta beste batzuk	12.021.153	13.139.392	14.660.850	14.520.867	12.490.286	11.369.391	10.833.676	-
BPGaren gaineko portz.	21,1	21,4	22,2	21,5	19,5	17,5	16,3	-
- Izakinen aldakuntza	587.825	733.450	586.770	886.265	774.430	939.366	920.578	-
BARNE ESKARIA								
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	37.527.308	41.302.813	44.981.017	46.938.753	37.442.323	41.905.246	46.334.638	44.259.708
- Estatuko gainerakoak	21.325.833	22.931.404	23.806.292	23.911.992	20.073.022	21.894.303	22.528.321	-
BPGaren gaineko portz.	37,5	37,4	36,1	35,4	31,4	33,6	34,0	-
- Atzerria	16.201.475	18.371.409	21.174.725	23.026.761	17.369.301	20.010.943	23.806.317	-
BPGaren gaineko portz.	28,5	29,9	32,1	34,1	27,1	30,7	35,9	-
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	40.828.586	45.236.510	49.101.552	51.622.252	41.578.729	45.260.810	49.441.657	46.626.408
- Estatuko gainerakoak	25.620.056	27.134.703	29.504.248	30.456.531	27.547.800	28.007.018	30.323.704	-
BPGaren gaineko portz.	45,0	44,2	44,7	45,1	43,1	43,0	45,8	-
- Atzerria	15.208.530	18.101.807	19.597.304	21.165.721	14.030.929	17.253.792	19.117.953	-
BPGaren gaineko portz.	26,7	29,5	29,7	31,4	21,9	26,5	28,9	-

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak

Eskaintzaren aldetik, prezio korranteetako BPGaren bilakaerak erakusten duenez, industria eta energiaren sektorea 2005ean BPGaren %25,8 izatetik %22ra igaro da 2012an. Eraikuntza, berriz, %8,7tik %7,1era; eta zerbitzuak %53,8tik %61,6ra.

Kopuru errealetan, 2011 eta 2012 urte artean, eraikuntzaren jaitsiera nabarmentzen da, %6,3ko murrizpena izanik, eta beheranzko joerari eusten dio. Industriak eta energiak aurreko urtean aldakuntza-tasa positiboa izan ondoren (+%2), %2,4 egin du behera, gehienbat manufaktura industriaren atzeraldiagatik (-%2,1). Zerbitzuen sektorean ere behera egin du jarduera mailak: %0,3. Oro har, EAeren ekonomiaren balio erantsia %1,2 jaitsi da 2012an.

Enpleguaren bilakaerari dagokionez, lanaldi osoan neurtuta eta EUSTATEN HKEen arabera, negatiboa izan du, zenbatetsitako 2012ko urte batez bestekoa, %2,5ekoa izan baita. Sektore guztietan egin du behera, neurri txikiagoan nekazaritzan (-%0,1) eta zerbitzuetan (-%0,8), eta handiagoa eraikuntzan (-%11,8) eta industrian (-%4,3), neurri txikiagoan bada ere.

Prezioei eta produktibitateen gaineko azterketa egiteko, prezio, kostu eta errentei buruzko atala irakurtzea gomendatzen dugu.

3.2. BARNE ESKARIA

Arestian esan dugunez, barne eskariaren jaitsiera aurreko epealdikoa baino handiagoa izan da (%-2,2, aurreko %-0,3aren aldean.

Hala, barne eskariaren hazkundera geldotuz joan da 2011n, zeren %0,2ko aldakuntza-tasa errealarakin (urte artekoa) hasi baitzen lehen hiruhilekoan eta laugarrenean %-1,4arekin bukatu. Joera hori areagotu egin da 2012an; izan ere, %1,4ko aldakuntza negatiboa erregistratu da lehen hiruhilekoan eta %2,5ekoarekin amaitu da laugarrena.

Eskariaren osagaien araberako bereizketa eginez gero, etxebizitzetako kontsumoaren gastuak gorabeherak izan zituen hiruhilekoen artean eta urtea % 1,6ko jaitsierarekin amaitu zuen. Bestalde, AAPPen gatuan pixkanaka goraka ari dira aldakuntza-tasa negatiboak, %-0,2tik lehen hiruhilekoan %-3,4ra hirugarrenean, baina laugarrenean jaitsiera txikiagoarekin bukatu du (%-1,6).

Aldakuntza-tasa horiek azken kontsumoa jaitsarazi dute: lehen hiruhilekoan aldakuntza nulua izatetik %-1,6ko negatiboa izatera laugarrenean. Hala, urteko batez besteko tasa %-1,2koa da.

Inbertsioari dagokionez, eta zehazki ekipo ondasunen inbertsioari dagokionez, datuek egoera zaila erakusten dute, zeren eta jaitsiera tasek gora egiten baitute urtea aurrera doan heinean: lehen hiruhilekoan %1,3ko aldakuntza tasa negatibotik -%5,8kora laugarrenean.


Eustatek emandako informazioaren arabera, kontsumo pribatuaren egoeraren araberako adierazle nagusiek ahultze ekonomikoa berresten dute.

Hala, Industri Ekoizpenaren Indizearen urte arteko aldakuntza tasak, kontsumo ondasunei dagokienak, -%5,1 aldatu ditu 2012an denda handietako salmentak, baita prezio iraunkorrak (-%3,2) eta turismoen matrikulazioak ere (-%16,7).

Era berean, hoteletan igarotako gauen kopurua (EAEkoak bertakoak kontuan hartu gabe) hazi egin zen, baina aurreko urtean baino gutxiago: % 1,1 2012an eta % 5,1 2011n.

Inbertsioaren adierazleei dagokienean, inbertsio-ondasunen Industria Produzioaren Indizea % 7,7 jaitsi zen (aurreko urtean % 5,2ko gehikuntza). Zamalanetarako ibilgailu industrialen matrikulazioak % 42,9ko beherakada izan zuen aurreko urteko % 19,3ko beherakadaren aldean.

II.2.3. GRAFIKOA. BARNE ESKARIA. ALDAKUNTZA ERREALEKO URTE ARTEKO TASAK



Iturria: EUSTAT. HKE

3.3. KANPOKO ESKARIA

II.2.3. KOADROA. KANPOKO ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN EBOLUZIOA (Urte arteko aldakuntza tasa)

	2010	2011	2012
Kontsumo publikoaren adierazleak			
AAPPen kontsumoaren gastua (HKEen arabera)	2,2	-0,1	-2,1
Kontsumo pribatuaren adierazleak			
IPI kontsumoko ondasunak	1,0	-2,2	-5,1
Turismoen matrikulazioa (ziklo-joeraren datuak)	-9,6	-26,4	-16,7
Barne Merkataritzaren Salmenta Tasa (p. kor.)	2,7	-2,5	-
Denda handietako salmentak (p. kor.)	-	-5,7	-3,2
Beste batzuk			
Hoteletan igarotako gauak (EAEkoak kenduta)	13,8	5,1	1,1
Inbertsioaren adierazleak			
IPI ekipoko ondasunak	-2,6	5,2	-7,7
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	0,0	-19,3	-42,9


Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoak eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak

2013ko otsailean argitaratutako Eustaten Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoek, Estatuari eta munduko gainerako tokiei egindako ondasun eta zerbitzu salmentei dagokienez, adierazten dute esportazioa urtean batez beste %5,2 jaitsi zela kopuru errealetan 2011 eta 2012 urte artean (aurreko aldia % 5,5 hazi zen). Halaber, inportazioa % 6,4 jaitsi zen (aurreko aldia % +4,4). Bi aldagaiek hiruhilekoko bilakaeraren antzeko profila ageri dute. Bestalde, inportazioak lehenengo hiruhilekoa % 2,6ko jaitsierarekin hasi dute; jaitsiera gutxitu egin da bigarrenengoan, -% 0,1 aldatuta; ondoren, hazkundera gertatu da. Hala, urte arteko %9,6ko jaitsiera izan da laugarren hiruhilekoaren amaieran. Bestalde, lehen hiruhilekoaren hasieran %3,8ko jaitsiera izan zen inportazioetan, eta jaitsiera moteldu da -%2,7ko aldaketa izan baita. Ondoren, hirugarren hiruhilekoan, %8,8 beherakada izan da, eta laugarrenean %10,2koa.

Euskal ekonomiaren irekiera-maila (Estatuarekiko eta atzerriarekiko harremanak) murriztu egin da 2011 eta 2012 urte artean, % 144,5etik 137,2ra igaro baita. Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak esportazioarekin duen estaldura-maila %1,2 igo da, % 93,7tik % 94,9ra igaro baita.

II.2.4. GRAFIKOA. KANPOKO SEKTOREAREN BILAKAERA EAE-N (BOLUMEN-INDIZEAREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA. DATU ZUZENDUAK)



Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta HKE

7 Irekiera-maila: (Esportazioak+prezio korronteko inportazioak)/BPG ohiko prezioak*100


8 Estaldura-maila: prezio korronteko esportazioak / prezio korronteko inportazioak*100

Prezio arrunteko BPGaren bilakaera aztertuta ikus daitekeenez, Estaturako esportazioek behera egin dute: 2005ean BPGaren %37,5 izatetik 2011n %34 izatera, eta atzerriakoetan, berriz, %28,5etik %35,9ra. Bestalde, Estatuaren inportazioetan, %45etik %45,8ra, eta atzeritik %26,7tik %28,9ra.

EUSTATen Kanpo Merkataritzaren Estatistika

Atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzaren datuek, Aduanetako Erregistroetan oinarrituta, Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak eskainitakoak, adierazi egiten dute esportazioen balio korrontea txikitu egin zela % 0,9an 2012. urtean. Energiakoek izandako beherakada % 10,8koa izan zen, eta energiakoak ez direnena (guztien % 90) % 2,1koa. Bestalde, inportazio osoek % 10,4 egin zuten gora. Bertan, energia inportazioen balioak (guztiaren % 35) % 10,2 jaitsi ziren, eta energiakoak ez diren kasuan % 10,5koa izan zen hazkundera.

II.2.5. GRAFIKOA. ESPORTAZIOEK (X) ETA INPORTAZIOEK (M) BPG-EAN DUTEN PISUA (PREZIO KORRONTAK)



Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

II.2.4. KOADROA. KANPO MERKATARITZAREN BILAKAERA (urteko aldakuntza-tasak, nominalak)

	Esportazioak			Inportazioak		
	Oro-tara	Ener-giak.	Ez energi.	Oro-tara	Ener-giakoak	Ez energiak.
2005	5,8	12,2	5,4	15,6	52,1	4,4
2006	16,4	51,4	14,1	20,2	32,9	14,6
2007	14,6	12,5	14,7	8,2	-3,2	14,1
2008	6,3	22,6	4,9	6,4	22,9	-0,8
2009	-26,3	-30,5	-25,9	-38,9	-40,1	-38,2
2010	19,6	22,7	19,3	25,5	24,6	26,0
2011	14,6	17,3	14,4	12,2	13,8	11,3
2012	-0,9	10,8	-2,1	-10,4	-10,2	-10,5

Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika, Muga-zergen Erregistroan oinarrituta

Datu horiek oinarri hartuta, euskal ekonomiaren irekiera-maila (atzeriarekiko harremanak) % 57tik 54,1era igaro zen, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioak inportazioarekin duen estaldura-maila % 118tik % 130,9ra igaro zen.

EAEko energiakoak ez diren esportazioak muga-zergen taldeak gorabehera aztertuz gero, ikus daiteke berriro ere nabarmen ageri direla, lehenik eta behin, ekipamendu-ondasunak, esportatu den guztiaren % 42,3 (makinen eta gailuen artean banatuta 4.241,4 milioi euro, eta garraio-materiala 4.337,6 milioi euro). Esportazioa %2 jaitsi da, garraio-materialaren esportazioen beherakadagatik (-% 7,7), zeren makina eta gailuenarenak gora egin baitu (+% 4,6). Bigarrenik, metal komunak eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren % 25arekin. Horien esportazioak % 7,4 egin du behera. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa da azpimarragarria, hain zuzen ere kopuru osoaren % 8,4. Haren aldakuntza-tasa positiboa da (% 1,9).

Energetikoak ez diren inportazioen aldetik, azpimarratzekoak dira metalak eta haien manufakturen. Horiek inportazio guztien % 21,2 hartzen dute, eta % 16,6 jaitsi ziren. Bigarrenik, ekipamendu-ondasunak inportazio guztien % 19,2 izan ziren, baina % 2,7 egin zuten behera makina eta gailuen inportazioan (-%2,9) eta garraio materialen inportazioan (-%2) izandako beherakadaren ondorioz.

Kanpoko saldoa 4.794,3 milioi eurokoa da, BPGaren % 7,2.

Energetikoak badiren eta energiakoak ez diren ondasun eta produktuak bereiziz, ondorioztatu egiten da energiaren saldoak defizita duela (-3.384,7 milioi euro). Aldiz, energetikoak ez diren produktuenak superabita erregistratu zuen, 8.179,0 milioi euro, BPGaren % 12,4, hau da, aurreko urteko ratioa (% 11,1) baino ehuneko 1,3 puntu gehiago.

EAEko esportazio ez energetikoen helmuga zein den kontuan hartuta, ELGari zuzendutakoak eta eremu horren barruan 15EBri zuzendutakoak dira, berriz ere, garrantzitsuenak: kopuru osoaren % 77,2 dira, eta % 2,4ko jaitsiera-tasa ageri dute. Bereziki azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz, Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak, EAEk EB15erantz egindako esportazioen % 77 izanez.

Estatu kide berriei zuzendutako esportazioari dagokionez, oraindik ere pisu nabarmena dute Poloniarri eta Txekiar Errepublikari zuzendutakoak. Azken horiek %12,3 egin dute gora; lehen bi herrialdeetarakoek, berriz, behera egin dute.

ELGaren eremuan, baina EBtik kanpo, azpimarragarriak dira AEBra, Mexikora eta Turkiara eginiko esportazioak. gainera, aldakuntza tasa positiboak dituzte aztertutako azken epealdian, eta bereziki aipagarria da Mexikorako esportazioen hazkundera (%68,7).

ELGatik kanpora, berriz ere nabarmentzen dira, haien pisuagatik, Brasil eta Txinarako esportazioak.

Aldi berean, nabarmenak dira Asiako ekonomia dinamikoetarako esportazioak, eta Singapur gailentzen da %140ko hazkunderarekin.

Inportazioei dagokienez, gehienak ELGatik datoz eta, zehazki, EB15eko herrialdeetatik, gehienbat Alemania, Frantzia eta Italiatik, hots, ELGaren inportazio guztien %54,3. Neurri txikiagoan, Erresuma Batukoak, Belgikakoak eta Portugalgoak.

ELGaren eremuan, baina EBtik kanpo, aipagarriak dira AEB eta Japoniatik datozenak.

II.2.5. KOADROA. EAE-REN ONDASUN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA ATZERRIAREKIKO (milioi eurotan) (muga-zerga taldeen araberako sailkapena)

MUGA-ZERGA TALDEAK	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK					SALDOA		
	2008	2011	2012 p		Aldakuntza 11-12	2008	2011	2012 p		Aldakuntza 11-12	2008	2011	2012 p
	milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak
Orotara	20.279,4	20.488,2	20.302,6	100,0	-0,9	20.118,0	17.309,7	15.508,3	100,0	-10,4	161,4	3.178,5	4.794,3
Energiakoak (Energi produktuak eta mineralak)	1.840,4	1.839,8	2.039,3	10,0	10,8	7108,1	6038,1	5.424,0	35,0	-10,2	-5.267,7	-4.198,4	-3.384,7
Energiakoak ez direnak	18.439,0	18.648,4	18.263,3	90,0	-2,1	13009,9	11271,6	10.084,3	65,0	-10,5	5.429,1	7.376,8	8.179,0
Nekazaritza produktuak	652,1	706,3	994,5	4,9	40,8	912,7	912,1	914,4	5,9	0,2	-260,6	-205,9	80,1
Produktu kimikoak	409,4	449,1	385,5	1,9	-14,2	617,2	769,5	688,2	4,4	-10,6	-207,8	-320,4	-302,7
Plastikoak eta kautxua	1.376,0	1.668,5	1.700,3	8,4	1,9	850,8	1.136,5	922,6	5,9	-18,8	525,2	532,0	777,7
Papera	486,9	506,8	501,1	2,5	-1,1	386,4	397,3	328,7	2,1	-17,3	100,5	109,5	172,4
Metal komunak eta haien manufak.	5.972,0	5.472,6	5.069,5	25,0	-7,4	5.101,7	3.942,9	3.289,3	21,2	-16,6	870,3	1.529,7	1.780,2
Ekipo ondasunak	8.472,0	8.754,3	8.579,0	42,3	-2,0	4.076,4	3.052,9	2.970,4	19,2	-2,7	4.395,6	5.701,4	5.608,6
Makinak eta gailuak	4.224,6	4.055,7	4.241,4		4,6	2.693,8	2.410,5	2.340,7		-2,9	1.530,8	1.645,2	1.900,7
Garraio materiala	4.247,4	4.698,6	4.337,6		-7,7	1.382,6	642,4	629,7		-2,0	2.864,8	4.056,2	3.707,9
Beste manuf. batzuk	922,2	922,6	867,4	4,3	-6,0	1.043,5	1.032,6	910,7	5,9	-11,8	-121,2	-110,0	-43,3
Sailkatu gabeak	148,4	168,3	166,1	0,8	-1,3	21,4	27,7	60,0	0,4	116,4	127,1	140,6	106,1

P behin-behinekoak Iturria: EUSTAT.Kanpo Merkataritzaren Estatistika

ELGAtik kanpo, Txinatik eta Errusiatik datozen inportazioak nabarmentzen dira.

Azkenik, EAEko energiakoa ez den kanpoko saldoa hobetu egin da, 7.376,8 milioi euroko superabit batetik 8.179,0ra igaro baita 2011. eta 2012. urteen artean.

Bestalde, energiakoak ez diren ondasunen estaldura-tasa areagotu egin da, 2011. eta 2012. urteen artean % 165,4tik % 181,1era igaro baita.

II.2.6. KOADROA. EAE-KO ENERGIAKOAK EZ DIREN ONDASUNEN KANPOKO MERKATARITZA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (muga-zerga taldeen arabera sailkapena) (mila eurotan)

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA		
	2010	2011	2012 p	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012 p	Alda k. 201 1-12	2010	2011	2012 p
OROTARA	16.306.453	18.648.441	18.263.307	-2,1	10.126.380	11.271.596	10.084.272	-10,5	6.180.073	7.376.845	8.179.035
EB27	10.504.626	12.412.611	11.573.607	-6,8	6.877.235	7.511.652	6.929.133	-7,8	3.627.391	4.900.959	4.644.474
EB25	10.423.165	12.305.211	11.453.688	-6,9	6.811.178	7.447.465	6.883.424	-7,6	3.611.987	4.857.746	4.570.264
EB15	9.631.914	11.416.574	10.597.660	-7,2	6.470.537	7.098.341	6.556.176	-7,6	3.161.377	4.318.233	4.041.484
EBKB (EBko Kide Berriak)	872.711	996.037	975.949	-2,0	406.699	413.310	372.958	-9,8	466.012	582.727	602.991
Eurogunea	8.534.236	10.032.203	9.181.364	-8,5	5.664.905	6.281.155	5.861.577	-6,7	2.869.331	3.751.048	3.319.787
ELGA	12.277.910	14.451.076	14.104.346	-2,4	7.794.662	8.531.852	7.813.740	-8,4	4.483.248	5.919.224	6.290.606
ELGA, EBtik kanpo	1.878.468	2.181.106	2.692.232	23,4	1.017.358	1.102.269	940.286	-14,7	861.110	1.078.837	1.751.946
EEEH – Erdiko eta Ekialdeko Europako Herrialdeak	142.097	195.841	174.451	-10,9	90.786	97.287	72.609	-25,4	51.311	98.554	101.842
EIE – Estatu Independente en Erkidegoa	192.950	270.671	294.373	8,8	348.717	455.840	363.450	-20,3	-155.767	-185.169	-69.077
MEH – Mediterraneo ko Arroko Herrialdeak	1.180.928	1.012.880	1.009.207	-0,4	240.642	250.833	184.449	-26,5	940.286	762.047	824.758
MAGREB – Magrebeko herrialdeak	585.004	429.084	450.086	4,9	78.375	80.239	71.069	-11,4	506.629	348.845	379.017
Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Ituna	881.779	1.053.018	1.414.228	34,3	354.976	377.072	344.082	-8,7	526.803	675.946	1.070.146
MERCOSUR – Hego Amerikako Merkatu Komuna	495.283	735.587	473.383	-35,6	106.715	144.219	84.956	-41,1	388.568	591.368	388.427
AED – Asiako Ekonomia Dinamikoak	481.791	274.536	316.848	15,4	268.370	358.492	254.942	-28,9	213.421	-83.956	61.906
HIB – Asiako Herrialde Industrializatu Berriak	389.939	168.724	247.954	47,0	160.488	231.272	184.753	-20,1	229.451	-62.548	63.201

p. Behin-behineko datuak

EBKB: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hego Amerikako Merkatu Komuna. EEEH: Erdiko eta Ekialdeko Europako Herrialdeak. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malasia eta Tailandia).


Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika

II.2.7. KOADROA. EAE-KO ENERGIAKOAK EZ DIREN ONDASUNEN KANPOKO MERKATARITZA, EREMU GEOGRAFIKO ETA HERRIALDEEN ARABERA (muga-zerga taldeen arabera sailk.) (mila eurotan)

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA		
	2010	2011	2012 p	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012 p	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012p
Orotara	16.306.453	18.648.441	18.263.307	-2,1	10.126.380	11.271.596	10.084.272	-10,5	6.180.073	7.376.845	8.179.035
ELGA	12.277.910	14.451.076	14.104.346	-2,4	7.794.662	8.531.852	7.813.740	-8,4	4.483.248	5.919.224	6.290.606
EB-15	9.631.914	11.416.574	10.597.660	-7,2	6.470.537	7.098.341	6.556.176	-7,6	3.161.377	4.318.233	4.041.484
Alemania	2.446.133	3.029.630	2.883.775	-4,8	1.641.938	1.960.335	1.887.125	-3,7	804.195	1.069.295	996.650
Austria	172.281	-	-	-	129.968	138.585	180.010	29,9	42.313	-	-
Belgika	595.706	721.449	620.846	-13,9	344.941	421.699	335.845	-20,4	250.765	299.750	285.001
Frantzia	2.769.683	3.213.400	3.054.180	-5,0	1.586.532	1.695.851	1.513.098	-10,8	1.183.151	1.517.549	1.541.082
Italia	1.097.071	1.189.499	942.569	-20,8	853.657	894.299	848.525	-5,1	243.414	295.200	94.044
Herbehereak	306.430	394.531	310.333	-21,3	401.416	424.734	443.087	4,3	-94.986	-30.203	-132.754
Portugal	799.958	863.056	779.155	-9,7	264.915	302.894	320.376	5,8	535.043	560.162	458.779
Erresuma Batua	979.410	1.187.715	1.276.923	7,5	589.929	630.172	507.039	-19,5	389.481	557.543	769.884
Suedia	145.601	239.739	205.853	-14,1	192.539	191.068	184.037	-3,7	-46.938	48.671	21.816
EBKB	872.711	996.037	975.949	-2,0	406.699	413.310	372.958	-9,8	466.012	582.727	602.991
EB-25	10.423.165	12.305.211	11.453.688	-6,9	6.811.178	7.447.465	6.883.424	-7,6	3.611.987	4.857.746	4.570.264
Polonia	299.455	354.021	321.310	-9,2	108.911	99.652	102.772	3,1	190.544	254.369	218.538
Txekiar Errepublika	308.119	261.155	260.743	-0,2	63.177	97.157	100.146	3,1	244.942	163.998	160.597
EB-27	10.504.626	12.412.611	11.573.607	-6,8	6.877.235	7.511.652	6.929.133	-7,8	3.627.391	4.900.959	4.644.474
Errumania	63.688	88.810	99.700	12,3	55.591	42.249	30.825	-27,0	8.097	46.561	68.875
ELGA, ez EBTik kanpo	1.878.468	2.181.106	2.692.232	23,4	1.017.358	1.102.269	940.286	-14,7	861.110	1.078.837	1.751.946
AEB	580.811	639.889	774.443	21,0	286.970	306.312	263.161	-14,1	293.841	333.577	511.282
Japonia	37.423	48.194	69.877	45,0	122.029	139.875	140.192	0,2	-84.606	-91.681	-70.315
Mexiko	237.111	326.111	550.228	68,7	31.119	27.180	35.568	30,9	205.992	298.931	514.660
Turkia	356.480	387.232	407.021	5,1	78.139	81.427	64.661	-20,6	278.341	305.805	342.360
MERCOSUR	495.283	735.587	473.383	-35,6	106.715	144.219	84.956	-41,1	388.568	591.368	388.427
Argentina	-	115.280	97.095	-15,8	-	51.806	44.415	-14,3	-	63.474	52.680
Brasil	384.683	606.201	360.310	-40,6	85.705	88.808	40.112	-54,8	298.978	517.393	320.198
AED	481.791	274.536	316.848	15,4	268.370	358.492	254.942	-28,9	213.421	-83.956	61.906
Singapur	303.617	52.139	125.159	140,0	-	17.661	-	-	-	34.478	-
Txina	406.159	471.407	417.911	-11,3	878.635	896.315	830.918	-7,3	-472.476	-424.908	-413.007
India	213.928	179.611	179.719	0,1	67.226	118.141	153.571	30,0	146.702	61.470	26.148
Maroko	205.963	172.422	168.324	-2,4	40.624	36.451	39.798	9,2	165.339	135.971	128.526
Errusia	165.325	209.470	191.025	-8,8	285.958	365.244	268.870	-26,4	-120.633	-155.774	-77.845

p. Behin-behineko datuak EBKB: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hego Ameriketako Merkatu Komuna. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malasia eta Tailandia). Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika

II.2.6. GRAFIKOA. KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA EAE-N EDUKI TEKNOLOGIKOAREN ARABERA



p: behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT

II.2.8. KOADROA. KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA EAE-N, MAILA TEKNOLOGIKOAREN ARABERA

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012 p
X guztira (milioi €-tan)	13.935	16.201	18.508	19.691	14.513	17.413	19.890	19.656
Altuen X %a kopuru osoaren gainean	2,7	2,4	2,7	2,6	2,6	2,8	2,5	2,4
Ertain eta altuen X %a osoaren gainean	48,6	45,6	44,1	43,2	43,8	40,5	42,9	44,2
Ertain eta baxuen X %a osoaren gainean	40,5	44,4	45,8	46,8	45,2	49,1	47,1	44,6
Baxuen X %a osoaren gainean	8,3	7,6	7,4	7,3	8,4	7,6	7,6	8,9
M guztira (milioi €-tan)	9.859	11.744	13.701	13.320	8.474	10.405	11.600	9.940
Altuen M %a kopuru osoaren gainean	4,7	4,6	4,1	5,0	5,9	6,0	5,1	5,0
Ertain eta altuen M %a osoaren gainean	38,2	34,7	32,8	33,1	33,6	32,4	33,0	36,9
Ertain eta baxuen M %a osoaren gainean	42,8	48,0	51,0	49,6	44,7	46,9	48,2	43,4
Baxuen M %a osoaren gainean	14,4	12,8	12,1	12,3	15,8	14,7	13,6	14,7

p. Behin-behineko datuak. X: esportazioa. M: inportazioak. Iturria: EUSTAT

Beste sailkapen mota bati erreparatu gero, hots, maila teknologikoaren arabera (handia, ertain eta altuak eta baxua) ikus daitekeenez, eduki teknologiko altuko esportazioak guztizkoaren %2,4 dira 2012an, ertain eta altukoak %44,2, ertain eta baxukoak %44,6 eta maila baxukoak %8,9. 2011 eta 2012. urteen artean, pisua hartu dute maila ertain eta altuko esportazioek, zeren %42,9 izatetik %44,2 izatera igaro baitira. Bestalde, ertain eta baxukoek proportzioa galdu dute guztizkoarekiko, %47,1etik %44,6ra igaro baitira.

Inportazioei dagokienez, eduki teknologikokoak guztizkoaren %5 dira, ertain eta altukoak %33,6, ertain eta baxukoak %43,4 eta baxukoak %14,7. 2011 eta 2012. urte artean, handitu egin da maila teknologiko ertain eta altuen pisua (%33tik %36,9ra), eta behera egin du ertain eta txikikoei dagokienak (%48,2tik %43,4ra).

3.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Atzerriko inbertsioa EAEn

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn jaitsi egin zen 2011 eta 2012 artean, hain zuzen ere % 13 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero. EAEk, orotara, 433.802 milioi euro jaso ditu. Alabaina, EAEk estatuko guztizko kopuruaren gainean duen proportzioak gora

egin du: 2011ko %2,2tik 2012ko %3,2ra. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontatuz gero, %9,2raino igotzen da, eta %7,5etik aipaturiko %9,2ra igotzen da 2011 eta 2012 urte artean.

Hala, 2012. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu du inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (8.727,8 milioi euro jasotzen baititu, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (2.603 milioi euro jasotzen baititu). 2011. urtean, EAEk laugarren postua bete zuen inbertsio bolumenean, Madrilen, Kataluniaren eta Andaluziaren atzetik.

Sektoreen aldetik, bereziki azpimarragarriak dira hauexetan eginikoak, guztizkoan duten pisuagatik:


- Informazioa eta komunikazioak, EAEn eginiko inbertsioaren %45,8 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %33,9.
- Industria kimikoa eta kautxuaren eta plastikoen eraldaketa, EAEn eginiko inbertsioaren %13 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %12,3.
- Administrazio eta zerbitzu osagarrietako jarduerak, EAEn eginiko inbertsioaren %10,5 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %8,9.
- Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak, EAEn eginiko inbertsio guztien %7,9 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren %10.

II.2.9. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA*, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (mila eurotan)

	2008	2009	2010	2011	2012
OROTARA	29.522.834,24	12.364.252,43	12.216.199,31	23.615.365,72	13.460.450,56
EAE	326.311,42	90.976,21	152.131,70	524.662,76	433.801,87
Andaluzia	225.746,02	315.315,70	1.225.522,80	619.374,98	231.247,13
Aragoi	99.623,41	133.637,80	47.478,87	38.339,98	150.184,18
Kantabria	72.852,51	12.104,43	3.666,98	16.790,50	22.029,61
Gaztela eta Leon	46.197,48	67.797,11	56.256,14	182.727,34	14.941,72
Gaztela-Mantxa	110.402,49	178.345,72	55.667,19	462.593,97	50.648,07
Katalunia	2.344.297,34	1.561.600,39	4.824.785,68	3.018.253,26	2.602.936,58
Ceuta eta Melilla	629,90	727,05	2,65	35,66	1.387,92
Madril	23.905.874,09	8.040.148,98	4.445.785,01	16.616.453,78	8.727.783,94
Valentzia	279.448,75	443.590,21	134.382,64	382.353,03	91.316,16
Extremadura	4.944,48	28.635,00	30.404,96	36.004,54	31.552,15
Galizia	27.190,47	167.465,30	49.034,48	524.518,22	173.979,42
Balearrak	545.696,64	419.931,37	169.982,87	408.249,42	246.887,11
Uharte Kanariarrak	20.843,78	77.398,81	113.980,82	83.411,16	68.350,55
Errioxa	7.663,69	3.595,54	36.414,21	2.718,46	10.264,53
Nafarroa	23.114,88	30.754,76	111.510,30	49.302,33	161.335,73
Asturias	6.974,29	6.344,83	29.323,33	18.363,55	62.737,35
Murtzia	189.679,74	11.680,67	28.594,97	72.065,13	18.090,92
ESLEITU BARIK	1.285.342,86	774.202,55	701.273,71	559.147,65	360.975,62

ABDE deskontatuta. Iturria Atzerriko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.7. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* EAE-N



* ABDE barik. Iturria: Atzerriko Inbertsioen Erregistroa

Lurraldean aldetik, ELGAko herrialderen batean kokatzen da kasuen %86,2tan inbertsioaren azken titularraren egoitza, eta %63,9tan EB15eko herrialderen batean (guztira, 277,3 milioi euro)

EB-15eko herrialde inbestitzaile nagusiak Luxenburgo (227,6 milioi euro, eta horietatik 194 telekomunikazioetako inbertsio bati dagozkio) eta Frantzia (10,4 milioi euro) dira, eta Espainiako gainerako erkidegoek gurean egiten duten inbertsioa (estatistika honetan barne den atzerriko inbertsioa

da eta, beraz, EBren eta ELGaren zifren barnean) 26,9 milioi eurokoa da.

Bereziki azpimarragarria da Brasil, India eta Zeelanda Berritik datozen inbertsioen hazkundera; izan ere, EAEn eginiko inbertsioen %1,9, %10,4 eta %13 dira, hurrenez hurren.

II.2.10. KOADROA. EAE-K DUEN INBERTSIO GORDINA*, SEKTORE ETA HERRIALDEEN ARABERA (mila €-tan) (CNAE-09)


	2010	2011	2012	Estatua 2012 p	Banaketa EAE	Estatua (%)	%10-11	%11-12
A. Nekaz., abeltz., basog. eta arrantza	3,4	0,0	0,0	64.316,3	0,0	0,0	-100,0	-
B. Erauzketa industriak	0,0	0,0	0,8	125.520,3	0,0	0,0	-	-
C. Elikadura, edariak eta tabakoa	76.000,0	2.138,9	23,0	363.612,8	0,0	0,0	-97,2	-98,9
C. Ehungintza eta jantzien jostintza	0,2	0,0	0,9	26.295,1	0,0	0,0	-100,0	-
C. Larru eta oinetakoaren industria	0,0	0,0	0,0	1.030,6	0,0	0,0	-	-
C. Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; otzarak eta espartza	0,0	50,0	0,0	1.455,5	0,0	0,0	-	-100,0
Barne merkataritzaren salmenten indizearen arabera, merkataritzaren salmentak gutxitu dira. Izan ere, 2011n (erabilgarri dauden azken datuak) % 2,7 murriztu da prezio iraunkorretan. Handizkako merkataritzako salmentak % 2 jaitsi dira termino errealetan (prezio iraunkorretan), eta txikizkako merkataritzakoak, aldiz, % 4 murriztu dira (% -3,5 zerbitzuguneak kontuan hartu gabe²⁰).

Indize horren okupazio datuek erakusten dute sektorean enplegua % 1,5 murriztu dela 2011n; aurreko denboraldian, berriz, beherakada % -0,5ekoa izan zen. Handizkako eta txikizkako merkataritza bereiziz gero, lehenengoaren enplegua % 1,1 murriztu da eta bigarrenarena % 1,7.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren eta espezializatu gabearen artean bereizketa eginez gero, ikusten dugu lehenengo kasuan gehiago murriztu direla salmentak bigarrenaren baino. Merkataritza espezializatuaren salmentak % 4,4 beheratu dira eta espezializatu gabeko merkataritzaren salmentak, aldiz, % 2,9.

Handizkako merkataritzari dagokionez, 2010 eta 2011 bitartean Makineria eta ekipoaren hobekuntzak nabarmendu behar dira; izan ere, sektorea % -1,8ko aldakuntza tasatik % +0,8ra igaro da. Nekazaritzako produktuetan eta elikagaietan ere hobekuntza egon da % -1,9tik % +0,8ra igarotzean.

Ostalaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAeko BPGd-aren balioaren % 4 inguru hartzen du (2.666,2 milioi euro; 2011ko datua) eta enpleguaren % 5,1 inguru (lanaldi osoaren pareko 47.656 lanpostu; 2010eko datua).

EUSTATen Kontu Satelitearen 2010eko azken datuen arabera, turismoak 3.663 milioi euro hartu zituen. Horrek 5,6ko ekarpena dakar EAeko BPGd-rako.

Estatuan turismoa urte bereko BPGd-aren % 10,2koa izan da, EINren datuen arabera. EAeko gastu turistikoaren % 47,1 EAeren kanpotik (Estatuko gainerako autonomia erkidegoak eta atzerria) datozen bisitariak sortzen dute; gainerako % 52,9 Erkidegoan bizi diren turistek eta txangozaleek egindakoaren eta turismo igorlearen jatorriko gastuaren (hau da, turismoa dela-eta egoiliarrek EAetik kanpo doazenean EAEn bertan sortzen dituzten gastuak: bidaia-agentziak eta garraioa) artean banatzen da.

20 Europako sailkapen berrira (NACE 2. ber) eta nazioan dagoen horren bertsiora egokitzean (EJSN 09) Barne Merkataritzaren Indizean aldaketak egin dira. Aldaketarik garrantzitsuena da ibilgailuen establezimendu espezializatuaren egindako industriarako erregaien txikizkako merkataritzaren jardura (gasolina zerbitzuguneak) Txikizkako Merkataritzaren azpisektorean sartu izana.

I.2.21. KOADROA. TURISMOAK EUSKAL EKONOMIARI EGINDAKO EKARPENA (Balio absolutua eta BPGd-aren gaineko portzentajea. Prezio arruntak)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010 (a)
Gastu turistikoa, guztira (milioika €-tan)	3.133	3.408	3.604	3.705	3.591	3.663
Turismo hartzailea	1.484	1.622	1.688	1.679	1.662	1.726
Turismoaren bestelako osagaiak	1.649	1.786	1.916	2.026	1.929	1.937
Gastu turistikoa, guztira (%)	100	100	100	100	100	100
Turismo hartzailea	47,4	47,6	46,8	45,3	46,3	47,1
Turismoaren bestelako osagaiak	53,6	52,4	53,2	54,7	53,7	52,9
BPGd-aren gaineko %						
Gastu turistikoa, guztira	5,5	5,5	5,4	5,5	5,6	5,6
Turismo hartzailea	2,6	2,6	2,5	2,5	2,6	2,6
Turismoaren bestelako osagaiak	2,9	2,9	2,9	3,0	3,0	3,0

(a): aurrerapena

Iturria: EUSTATen Turismoaren Kontu Satelitea. 2005eko oinarria.

I.2.22. KOADROA. BIDAIARI KOPURUAREN, BERTAN IGAROTAKO GAUEN ETA EGUNETAKO BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN BILAKAERA EAE-N

	2009			2010			2011			2012		
	Bidaiariak	Gauak	Batez besteko egonaldia	B	G	BBE	B	G	BBE	B	G	BBE
Guztira, EAE gabe	1.638.466	3.170.583	1,94	1.866.571	3.608.925	1,93	1.955.327	3.793.633	1,94	1.965.912	3.834.248	1,95
Estatua, EAE gabe	1.035.125	1.995.124	1,93	1.150.543	2.262.749	1,97	1.192.275	2.332.858	1,96	1.156.890	2.280.397	1,97
Atzeritarrak	603.341	1.175.459	1,95	716.028	1.346.176	1,88	763.052	1.460.775	1,91	809.022	1.553.851	1,92
EAEko berezkoak	353.324	572.626	1,62	372.128	605.135	1,63	386.393	641.771	1,66	359.249	599.545	1,67

Iturria: EUSTATen Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

I.2.23. KOADROA. BERTAN IGAROTAKO GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA

	Guztira okupatutako plazak (igarotako gauak)	Egunetako batez besteko egonaldia (Estatua)	Egunetako batez besteko egonaldia (atzerria)	Egunetako batez besteko egonaldia (orokorra)	Okupazio maila plaza bakoitzeko	Okupazio maila gela bakoitzeko
2008	3.792.091	1,85	1,93	1,88	44,57	54,31
2009	3.743.209	1,85	1,95	1,88	41,66	50,44
2010	4.214.060	1,88	1,88	1,88	43,97	52,19
2011	4.435.404	1,88	1,91	1,89	46,40	54,49
2012	4.433.793	1,90	1,92	1,91	46,35	54,57

Iturria: EUSTAT

I.2.24. KOADROA. ESTABLEZIMENDUEN, PLAZEN ETA ESKAINITAKO GELEN KOPURUA

	2008	2009	2010	2011	2012	Aldakuntza (%)
Direktorioan dauden establezimenduen kop.	425	437	452	446	455	2,0
Establ. irekietako plazen kop., inkestaren arabera	8.509.857	8.985.474	9.584.009	9.559.303	9.565.972	0,1
Establezimenduetako gelen kop., inkestaren arabera	4.556.863	4.745.669	5.075.650	5.062.860	5.025.259	-0,7

Iturria: EUSTAT

Hala eta guztiz ere, turismo hartzailearen aldean turismo igorleak EAEn duen garrantziak 3.012 milioi euroko defizita eragin du 2010ean (BPGd-aren % 4,6). Hala ere, 2008tik eta batez ere 2010ean, gastu turistiko hartzailearen gehikuntza (% 3,9) turismo igorlearena (% 1,9) baino handiagoa izan da.

EUSTATen Establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuek EAEn kokatzen diren hotel erako establezimenduetan (hotelak, aparthotelak, landa eremuko hotelak eta pentsioak) eta nekazaritza turismoko establezimenduetan (nekazaritza turismoko ostatuak eta landetxeak) ostatu hartu duten bidaiariak biltzen dituzte, eta EAeko hotel erako establezimenduetan bidaiari kopurua handitu egin dela erakusten dute (2011 eta 2012 bitartean % 0,5, aurreko aldiko % 4,8ren azpitik egonda). Gauzak horrela, EAeko hotel erako establezimenduetan ostatu hartu duten bidaiariak 1.966 mila izan dira (EAeko berezko bidaiariak kontuan hartu gabe). Gehikuntza atzerritarren turismoaren gehikuntzak (%+6) eragin du, Estatukoa zein EAeren barnekoa murriztu baitira (lehenengoa % -3 eta bigarrena % -7).

Bertan igarotako gauen multzoa (EAeko berezkoak kanpo utzita) % 1,1 gehitu zen (aurreko aldian % 5,1eko gehikuntza egon zen). Beraz, batez besteko egonaldia 1,95 egunean kokatzen da. Estatuko bisitarien kasuan 1,97 da kopuru hori eta Estatutik kanpokoen kasuan 1,92.

EAeko berezko bidaiariak eta gauak zenbatuta, 2012an batez besteko egonaldia 1,9 egunekoa izan da. Okupazio maila honela definitzen da hilabete baterako: hil zehatz batean igarotako gauak / (hoteleko plazak/logelak —bidezkoa denaren arabera— x hilak dituen egunak). Okupazio maila horren urteko batezbestekoa 46,4koa da plazako (2011ko ratioa bezalakoa); logelako, berriz, neurri txikian gehitu da 54,5etik 54,6ra. Establezimenduen kopurua gehitu egin da 446tik 455era. Irekitako establezimenduetako plaza kopurua, inkestaren arabera, 9.559.303tik 9.565.972ra igaro da (% +0,1). Logela kopurua, berriz, 5.062.860tik 5.025.259ra jaitsi da (% -0,7).


Garraioa eta biltegitratzea

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoaren maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagoak diren zerbitzu batzuk eskainita.

Garraio eta biltegitratzearen sektoreak, EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, EAeko BPGd-aren balioaren % 4,4 inguru hartzen du (2.942,2 milioi euro, 2011ko datua) eta enpleguaren % 4,5 inguru (lanaldi osoaren pareko 41.456 lanpostu, guztira; 2010eko datua).

Gure Erkidegoko **errepide sarea** Europako sare trinkoenetako bat da, azalerako dentsitate handienetakoa baitu (0,58 km errepide km² azalerako, Estatuak duenaren —0,33— bikoitza, nahiz eta biztanleko dentsitate txikiagoarekin). Sarearen % 14,7 baino gehiago edukiera handiko bideek osatzen dute eta Estatuan mota horretako bideak % 9,8 dira (2011ko datuak); edukiera handiko bide horietatik % 43,5 bidesaria duten autobideak dira, eta Estatuan, aldiz, % 18,8 dira bidesaridunak.

1.2.3. GRAFIKOA. BIDAIAIRIEN EAE-RAKO BIDAIEIEN BILAKAERA. HOTEL ERAKO ESTABLEZIMENDUAK.



Salgaien garraioari dagokionez, eskualde arteko trafikoa kontuan hartuta, trukeen bolumen handiena alboko autonomia erkidegoekin egiten da: Nafarroako Foru Komunitatea, Gaztela eta Leon, Kantabria eta Katalunia.

I.2.25. KOADROA. ERREPIDE SAREA (Km), MOTA ETA LURRALDEAREN ARABERA

	EAE					ESTATUA	
	2007	2008	2009	2010	2011	2010	2011
Km errepide*	4.229	4.203	4.209	4.198	4.212	165.787	165.907
Biztanleak (udal errolda, EIN)	2.157.112	2.172.175	2.178.339	2.184.606	2.193.093	47.190.493	47.265.321
Ibilgailu parkea	1.252.519	1.275.782	1.286.541	1.299.807	1.309.534	31.086.035	31.269.081
Sare osoa (km) / azalera	0,59	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,96	1,93	1,93	1,92	1,92	3,51	3,51
Ibilgailu parkea / sare osoa	296,2	303,5	305,7	309,6	310,9	187,5	188,5
Ibilgailu parkea / biztanle	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,7	0,7

Iturria: 2012an argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2011ko urtekaria eta EIN

I.2.26. KOADROA. ERREPIDE SAREA BIDE-MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)

	2007	2008	2009	2010	2011
ESTATUA					
Errepideen km, guztira	166.011	165.011	165.463	165.787	165.907
Edukiera handiko bideak, guztira	14.689	15.105	15.621	15.965	16.204
Bidesaria duten autobideak	2.972	2.997	3.016	2.991	3.045
Autobiak	10.041	10.521	11.005	11.275	11.509
Galtzada bikoitzeko errepideak	1.676	1.587	1.599	1.703	1.651
EAE					
Errepideen km, guztira	4.229	4.203	4.209	4.198	4.212
Edukiera handiko bideak, guztira	573	588	607	598	621
Bidesaria duten autobideak	228	240	256	254	270
Autobiak	261	270	273	281	282
Galtzada bikoitzeko errepideak	84	78	78	63	69

Iturria: 2012an argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2011ko urtekaria

I.2.27. KOADROA. TRENBIDEKO KM, EAE-N

	ELEKTRIFIKATU GABE						ELEKTRIFIKATUTA					
	2009		2010		2011		2009		2010		2011	
	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra	Guztira	Bide bakarra
GUZTIRA	47,44	47,44	47,98	47,98	47,98	47,98	592,71	251,99	592,89	252,00	597,54	248,07
ADIF (trenbide zabala)	0	0	0	0	0	0	304,5	86,80	304,5	86,80	305,0	87,0
FEVE	41,75	41,75	42,30	42,30	42,30	42,30	45,91	20,71	45,91	20,71	46,12	20,71
EUSKOTREN	5,68	5,68	5,68	5,68	5,68	5,68	242,29	144,49	242,29	144,49	246,42	140,36

Iturria: 2012an argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2011ko urtekaria eta EIN

I.2.28. KOADROA. ERREPIDE BIDEZKO SALGAIEN HELMUGA ETA JATORRIA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA (milaka tonatan)

	2010		2011	
	Helmuga: EAE	Jatorria: EAE	Helmuga: EAE	Jatorria: EAE
GUZTIRA	82.692	79.944	73.966	74.992
Andaluzia	488	777	512	594
Aragoi	1.868	2.019	1.809	1.674
Asturias	1.088	820	1.071	720
Balear Uharteak	-	-	-	-
Kanariar Uharteak	-	-	-	-
Kantabria	2.906	2.529	3.214	2.307
Gaztela eta Leon	4.846	4.139	4.534	5.844
Gaztela-Mantxa	718	625	602	539
Katalunia	2.519	2.221	2.016	1.639
Valentziako Erkidegoa	1.083	947	851	761
Extremadura	157	185	180	91
Galizia	1.584	1.291	980	808
Madril	1.751	1.576	1.750	1.948
Murtzia	271	250	255	386
Nafarroa	4.187	3.326	3.062	3.784
Errioxa	1.926	1.924	1.188	1.956
Ceuta-Melilla	-	-	-	-
EAE	57.302	57.302	51.928	51.928

Iturria: EUSTAT

Trenbideko garraioari dagokionez, trenbide-sareak jatorritik eduki dituen sorrera-arazo ugariak (bide-zabalera ezberdinak, estatu mailan trenaren bitarteko garraioa modu erradialean egitea, lotura falta eta abar) larritu egiten dira gure Erkidegoan orografia zaila delako eta egituratze horretan nagusi ez zelako lurralde barruko antolamendua, eta, ondorioz, salgaien zirkulazioa eta Europarekin lotzea nabarmenki zailak dira. Arrazoi horiek direla eta, EAEn trena ez da lehiakorra beste garraio bide batzuen aldean, batez ere hiriburuen arteko loturetan. Aitzitik, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoaren sistematzat hartzen da, ustiapen kostu txikiak dituelako eta ingurumenari beste garraio bide batzuek baino kalte txikiagoa ekartzen diolako.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2011. urtean EAEko trenbide-sarea elektrifikatutako 597,54 kilometrok osatzen zuten. Horietatik % 51 ADIFena da; enpresa horrek kudeatzen ditu Bizkaiko eta Gipuzkoako aldirietako zerbitzuak, baita penintsulara doazen ibilbide ertain eta luzeko zerbitzuei loturiko azpiegitura ere. Beste % 41,2 Eusko Trenena da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea, adibidez), eta gainerako % 7,8 FEVEren bide estuko trenbideei dagokie; enpresa horrek kudeatzen ditu Bilbo-Santander, Bilbo-Leon eta Bilbo Handiko eremuko eskualde arteko loturak.

Ibilbide luzeko lineei eta haiek nazioartearekin dituzten loturei dagokienez, azpimarratzekoak dira Irunen eta Frantziako TGVren arteko lotunea eta euskal Y-aren proiektua. Azken hori abiadura handiko tren bati lotutako trenbide trazatu berria da EAarentzat; Erkidegoko hiru hiriburuak 30 minutu inguruan lotzea agintzen du, eta Madril eta Bordelerekin 2 ordu baino pixka bat gehiagoan.

Adierazgarria da EAEn geltoki intermodal bakarra edukitzea: Jundizekoa (Araba), RENFEren mende dagoena. Hura lehiatu egiten da trafiko europarrarengatik Baiona-Mugerreko pleiteko Zentro europarrarekin, Baionatik gertu dagoen zonan. Azken horrek 20 Ha-ko gehi erreserbako 50 Ha-ko lurraldea du, baita trenbideekiko lotuneak eta autobiderako sarrerak ere.

Bidaiarien trenbideko garraioari dagokionez, Metro Bilbaori eta Euskotreni buruzko datuak besterik ez dugu. Horietan antzeman da Metro Bilbaok garraiatutako bidaiarien kopurua berriro ere gehitu dela % 1,7 2009 eta 2010 bitartean, eta 88,6 milioikoa dela.

I.2.29. KOADROA. EUSKOTRENEK ETA METRO BILBAOREN BIDAIARIAK					
	2008	2009	2010	2011	2010-11
EuskoTren, guztira	20.898.398	24.638.334	26.518.183	26.494.162	-0,1
Bizkaia	9.698.594	9.263.776	9.047.821	8.766.677	-3,1
-- Deustu - Lezama	2.205.520	2.072.941	1.915.064	1.811.246	-5,4
-- Bilbo - Bermeo	2.099.169	2.003.722	1.949.492	1.775.738	-8,9
-- Bilbo - Ermua	2.365.443	2.209.681	2.158.413	2.019.590	-6,4
-- Larreinetako funikularra	181.749	177.980	175.244	161.260	-8,0
-- Bilboko tranbia	2.846.713	2.799.452	2.849.608	2.998.843	5,2
Gipuzkoa	11.088.624	10.685.276	10.492.521	10.301.839	-1,8
--Ermua - Amara	4059363	3.872.618	3.863.239	3.758.281	-2,7
--Lasarte Oria - Hendaia	6994603	6.775.308	6.592.487	6.511.908	-1,2
-- Azpeitia – Lasao lurrun tren	34.658	37.350	36.795	31.650	-14,0
Araba		4.689.282	6.977.841	7.425.646	6,4
-- Vitoria-Gasteizko tranbia*		4.689.282	6.977.841	7.425.646	6,4
Metro Bilbao	86.333.743	87.043.712	88.566.281	-	

* 2008ko abenduaren 23tik aurrera.
Iturria: EUSTAT

I.2.30. KOADROA. AIRETIKO TRAFIKOAREN BILAKAERA KONTZEPTU, EREMU ETA AIREPORTUKA												
	EAE		Foronda		Loiu		Donostia		2009-2010eko aldakuntzak			
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	EAE	Foronda	Loiu	Hondarr.
Aireontziak, guztira	58.796	58.454	6.210	5.058	46.102	46.825	6.484	6.571	-0,6	-18,6	1,6	1,3
Bidaiariak, guztira (milaka)	3.965	4.194	39	40	3.638	3.876	288	278	5,8	2,6	6,5	-3,5
Naziokoa	3.021	3.171	37	37	2.697	2.857	287	277	5,0	0,0	5,9	-3,5
Nazioartekoa	944	1.023	2	3	941	1.019	0,6	1	8,4	50,0	8,3	66,7
Salgaiak, guztira (Tm)	14.721	15.479	11.736	12.912	2.685	2.548	30	19	5,1	10,0	-5,1	-36,7
Naziokoa	4.132	3.889	2.005	1.761	2.100	2.110	27	18	-5,9	-12,2	0,5	-33,3
Nazioartekoa	10.318	11.589	9.730	11.151	585	437	3	1	12,3	14,6	-25,3	-66,7

Iturria: Sustapen Ministerioa

Euskotrenek garraiatutako bidaiari kopurua, aldiz, % 0,1 jaitsi zen 2010 eta 2011 artean, linea guztiek garraiatutako bidaiarien kopuruak behera egin baitu, Bilboko tranbiak eta Gasteizko tranbiak garraiatutako bidaiarien kasuan izan ezik (horietan bidaiari kopurua % 5,2 eta % 6,4 handitu da, hurrenez hurren).

Aireko garraioari dagokionez, EAEko hiru aireportuetatik 4.194 mila bidaiari igaro ziren 2010. urtean, eta hori % 5,8ko gorakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien garraioari dagokionez, epealdi berean bolumena % 5,1 jaitsi da.

Loiuko aireportutik 3,9 milioi bidaiari igaro zen guztira 2010. urtean, eta hori % 6,5eko gorakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien garraioari dagokionez, bolumena % 5,1 jaitsi da epealdi berean.

Forondako aireportuak % 10eko gorakada izan zuen 2009 eta 2010 bitartean, salgaien garraioari

dagokionez. Bidaiari kopuruaren aldetik, trafikoaren bolumena handitu egin zen 39 mila bidaiaritik 40 mila bidaiarira. Horrek esan nahi du % 2,6ko hazkundera egon zela.

Donostiako aireportuan, 2009 eta 2010 bitartean, bidaiarien trafikoa % 3,5 jaitsi zen eta salgaiena, aldiz, % 36,7.

I.2.31. KOADROA. ONTZIAK, BIDAIRIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

		2006	2007	2008	2009	2010	2011	%	2010-11ko aldakuntzaren %
Bilbo	Salgaiak, guztira (milaka Tm-tan)	38.591	40.023	39.398	32.180	34.666	31.998	100,0	-7,7
	Likido solteak	22.290	22.682	23.057	20.498	19.763	17.855	55,8	-9,7
	Solido solteak	4.989	5.832	5.267	3.828	4.452	4.006	12,5	-10,0
	Edukiontzia	5.629	5.920	6.139	4.757	5.696	6.081	19,0	6,7
	Ohiko salgaiak	4.300	3.997	3.518	2.522	3.750	3.789	11,8	0,9
	Bestelako trafikoa*	1.383	1.592	1.418	576	1.005	274	0,9	-72,7
	Ontziak, guztira (kopurua)	3.693	3.595	3.585	3.042	3.240	2.992		-7,7
Pasaia	Salgaiak, guztira (milaka Tm-tan)	5.511	5.078	4.778	3.519	3.896	3.252	100	-16,5
	Likido solteak	0	0	0	0	0	0	0	-
	Solido solteak	3.253	2.784	2.353	1.658	1.657	1.247	38,3	-24,7
	Edukiontzia	0,2	0,0	0,4	0,0	295	0,1	0,0	-100,0
	Ohiko salgaiak	2.202	2.240	2.372	1.810	2.181	1.949	59,9	-10,6
	Bestelako trafikoa*	57	54	53	51	58	56	1,7	-3,4
	Ontziak, guztira (kopurua)	1.547	1.453	1.320	943	1.086	963		-11,3
Bidaiariak, guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	0		-	

* Hornidura eta arrantza

Iturria: Sustapen Ministerioaren datu-basea

Itsasoko garraioan, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2010 eta 2011 bitartean portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) % 7,7 murriztu zen Bilboko Portuan, aurreko urteko % 7,7ko gorakadaren aurrean, eta 31.998 mila Tm-ra iritsi zen. Horietatik 21.861 mila soltean edo ontziratu gabeak ziren, eta horietatik % 81,7 (17.855 mila Tm) likidoak ziren. Bestela esateko, garraiatutako salgaien % 55,8 ontziratu gabeko likidoak ziren, batez ere petrolio-produktuak, baina azken urteetan beheranzko joera izan dute, bai balio absolutuetan bai osotasunaren gainean.

Ontzien kopurua jaitsi egin da 2011. urtean, eta 2.992ra murriztu dira. Bidaiarien kopurua ere jaitsi egin da, % 8,2 jaitsi ere: 151.421 izan dira urte osoan.

Pasaia Portuko kopuruak askoz ere murriztagoak dira. Salgaien portuko trafikoa % 16,5 murriztu da aurreko urtean izandako % 10,7ko gorakadaren ondoren, eta 3.252 mila Tm-koa izan da; salgai arrunten trafikoa, solido solteen trafikoa eta horniketa zein arrantza trafikoa murriztu egin dira.

Nabarmena da salgai solido solteen trafikoa izan duen joera aldaketa, osotasunaren barruan pisua galdu baitu, salgai arrunten mesedetan.

Ontzien kopurua txikitu egin da 2010 eta 2011 bitartean, eta 963 daude.

Finantza sektorea

Euroaren Eremuko egun baterako eskuhartze-tasa % 1ekoa izan zen 2011ren amaieran, eta tasa horri eutsi zion 2012ko uztailean arte; izan ere, une horretan Europako Banku Zentralak % 0,75era jaitsi zuen, eta urtearen amaieran ratio berean zegoen.

Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, aldiz, beren esku-hartze tasak mantendu dituzte aurreko urtean itxi zuten modu berdinean: lehenengoak % 0,25ekin eta bigarrenak % 0,1ekin.

Moneta merkatuko interes-tasei dagokienez, horiek epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabeterako Euribor indizea % 0,64n egon zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,11n egon zen; hiru hilabeterako Euribor indizea, aldiz, % 1,04n egon zen lehenengo hiruhilekoan, eta laugarrenaren amaieran % 0,2n; eta urtebeterako Euribor indizea % 1,67n zegoen urtearen hasieran, eta amaieran % 0,6n zegoen.

I.2.32. KOADROA. GORDAILU ENTITATEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (abenduaren 31ko saldoak)

	Milioika eurotan					EAEko banaketa 2012	Estatua 2012	Estatuaren gaineko %	2011-12ko aldakuntzaren %
	2008	2009	2010	2011	2012				
Guztira	87.420	83.863	86.884	85.956	79.338	100	1.798.156	4,4	-7,7
Adm. publikoa	2.028	2.757	3.562	3.859	4.277	5,4	82.996	5,2	10,8
Sektore pribatua (BSE)	85.391	81.106	83.322	82.097	75.062	94,6	1.715.160	4,8	-8,6

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria

I.2.33. KOADROA. KREDITU ENTITATEEK ETXEBIZITZEI ETA EZIAGE-ei EMANDAKO INTERES-TASA*

	DMTE** (Definizio murriztuko tasa efektiboa)			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Haztatutako batez besteko tasa			Etxebizitza	Kontsumoa	Beste xede batzuk
	Etxebizitza kreditua	Kontsumo kreditua ***	Beste xede batzuk			
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29
2012	2,81	7,76	5,81	2,93	8,31	6,23

* Etxebizitzaren zerbitzuan dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak
 ** DMTEk ez du komisiorik barne hartzen; UTBk, aldi, bai.
 *** 2010eko maiatzera arte, hura barne; zutabe honetan sartzen da kreditu-txartelen bidez emandako kreditua
 Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria

Beharakada hori sektore pribatuari emandako kredituak izandako beherakadaren (% -8,6) ondorioa da, Administrazio Publikoari emandako kreditua handitu egin baita (% +10,8).

Beste sektore egoiliar batzuetan kreditu-saldoak jaitsi izanak ziurrenik eragina eduki du etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duen kredituaren beherakadan ere. Gauzak horrela, Espainiako Bankuak estatu osoarentzat dituen datuen arabera (ez dago Autonomia Erkidegoetako daturik), magnitude hori % 2,9 murriztu da 2011 eta 2012 bitartean (612.829 milioi eurotik 594.623 milioi eurora).

Alde horretatik, EINren *Hipoteken Estatistikan* argitaratutako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek adierazten dute EAEn esleitutako hipoteken kopurua % 24 murriztu dela. Hipotekatutako finka gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 11,6 murriztu da, 135,8 mila eurokoa izanda aurreko ekitaldiko 151,7 mila euroren aurrean. Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua ere % 26,2 murriztu da, eta hipotekatutako etxebizitza kontuan hartuta maileguan emandako batez besteko zenbatekoa % 10,3 jaitsi da (143,2 milioi eurotik 130,5 milioi eurora).

I.2.34. KOADROA. ETXEBIZITZA EROSTeko HIPOTEKA-BERMEA DUTEN KREDITUAK ESTATUAN

	Milioika €-tan	Aldakuntza-tasak
2007	580.722	14,1
2008	611.483	5,3
2009	611.813	0,1
2010	620.433	1,4
2011	612.829	-1,2
2012	594.623	-2,9

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria

Kreditu-entitateek etxebizitzari emandako tasari (UTB) dagokionez, murriztu egin da bai kontsumoaren kasuan (% 9,11tik % 8,31ra 2011 eta 2012 bitartean) bai etxebizitzaren kasuan (% 3,66tik % 2,93ra).

Gordailu-entitateek²¹ EAEn emandako kreditu osoa berriro ere txikitu egin da 2012. urtean, 85.956 milioi eurotik 79.338 milioi eurora, hain zuzen (% -7,7).

Finantza entitateetan jarritako gordailuei dagokienez, Espainiako Bankuaren *Estatistika Aldizkariaren* datuen arabera, EAEn Administrazio Publikoak titular dituzten gordailuetako saldoa 2.533 milioi eurokoa izan zen 2012. urtearen amaieran. Kopuru hori bat dator urteko % 8,1ko beherakadatasarekin. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuak (BSE) 69.414 milioi eurokoak izan ziren, eta hori % 3,7ko beherakada izan zen aurreko aldiarekiko.

²¹ 2011. urteaz geroztik, Espainiako Bankuak informazioa Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Kreditu-Kooperatiben artean banakatuta argitaratzeaz utzi dio.

I.2.35. KOADROA. LANDA FINKEN ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK EAE-N

	2010			2011			2012 (behin-behineko datuak)			2011-12ko aldakuntza		
	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (milioika €-tan)	Batez besteko zenbatekoa (€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	43.384	7.186	165.637	33.979	5.155	151.711	25.801	3.505	135.847	-24,0	-32,8	-11,6
Landa finak	872	156	178.899	781	156	199.744	546	97	177.106	-26,5	-35,5	-12,3
Hiri finak	42.512	7.029	165.342	33.198	4.999	150.581	25.255	3.409	134.971	-24,0	-32,7	-11,5
Etxebizitzak	30.230	4421	146.245	23.082	3.306	143.228	17.033	2.222	130.453	-26,2	-33,8	-10,3
Orubeak	884	913	1.032.805	628	676	1.076.433	559	343	613.596	-10,6	-50,9	-45,1
Beste hiri finka batzuk	11.398	1.695	148.710	9.488	1.017	107.188	7.663	844	110.140	-19,5	-16,7	3,5

Iturria: EInren Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

I.2.36. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAREN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN GORDAILU ENTITATEETAKO GORDAILUAK (ABENDUAREN 31KO SALDOAK)

	Milioika eurotan				Ban.	Estatua	Estatuaren gaineko %	Aldakuntzaren %	
	2009	2010	2011	2012				2010-11	2011-12
PRIBATUA ETA PUBLIKOA, GUZTIRA	78.640	78.799	74.850	71.947	-	1.167.493	6	-5,0	-3,9
SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA	4.452	4.937	2.757	2.533	-	67.341	3,8	-44,2	-8,1
SEKTORE PRIBATUA (BSE), GUZTIRA	74.188	73.862	72.093	69.414	100	1.100.152	6,3	-2,4	-3,7
<i>Ageriko gordailuak</i>	14.605	13.866	15.795	18.805	27,1	264.841	7,1	13,9	19,1
<i>Aurrezki gordailuak</i>	17.544	18.624	15.919	12.749	18,4	199.112	6,4	-14,5	-19,9
<i>Eperako gordailuak</i>	42.037	41.374	40.379	37.860	54,5	636.199	6,0	-2,4	-6,2

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Aldizkaria

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuek izan ditzaketen modalitate ezberdinak (agerikoa, aurrezki eta eperakoa) kontuan hartuta aztertuz gero, ikusiko dugu ageriko gordailuek berriro ere gora egin dutela eta 18.805 milioi eurora iritsi direla (% 19,1), aurrezki gordailuen saldoak % 19,9 egin duela behera (12.749 milioi euro) eta eperako gordailuen saldoa % 6,2 murriztu dela, 37.860 milioi eurora jaitsi arte⁵.

Espainiako Bankuaren *Estatistika Aldizkariaren* datuen arabera, burtsari dagokionez, Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa (459.336 milioi euro 2012an) % 3,9 gehitu da aurreko urtearekin alderatuz gero, nahiz eta % 43,3 jaitsi den 2007ko datuekin alderatuz gero; batez besteko kontratazio-bolumena (696.262 milioi euro) % 24,8 txikitu da 2012an aurreko urtearekin alderatuz gero, eta % 58,3 2007ko datuekin alderatuz gero; IBEX-35 indizea

(urteko batez bestekoa: 7.538,2 puntu) % 22,1 jaitsi da 2012an aurreko urtearekin alderatuta, eta % 49,1 2007ko datuekin alderatuta.

Horrez gain, Bilboko Burtsaren 2000 Indizea 1.331 puntuan egon da 2012ko abenduan, eta horrek esan nahi du % 2,6ko beherakada izan duela aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta, eta % 49,3koa 2007ko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 22,1 murriztu da 2012an, 42.855,3 milioi euro, alegia. Beherakada horren jatorria errenta aldagariak eta errenta finakoak izan duten galera da (% -21,9 eta % -28,4, hurrenez hurren). Kontratazio osotik % 49,3 erosketei dagokie; esan beharra dago % 22,7ko beherakada izan dutela aurreko ekitaldiaren aldean.

I.2.37. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN 2000 INDIZEA

	AZKENA	GEHIE-NEKOA	GUTXIE-NEKOA	ALDAKUNTZAREN % (azkena/azken aurrekoa)
2006	2.577,5	2.635,8	1.611,6	34,14
2007	2.626,6	2.798,3	2.406,3	1,9
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,47
2009,	1.921,6	1.936,2	1.149,3	20,9
2010	1.615,18	1.975,39	1.398,65	-15,9
2011	1.366,61	1.808,89	1.210,76	-15,4
2012	1.331,00	1.443,33	974,81	-2,6

Iturria: Bilboko Burtsa

I.2.38. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN KONTRATAZIO-BOLUMENA (*)

	2008		2010		2011		2012		2011-2012ko aldakuntza	
	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak
BURTSA, GUZTIRA	222.575,2	113.432,0	246.734,0	127.989,9	194.227,5	96.577,1	151.372,3	74.690,3	-22,1	-22,7
ERRENTA ALDAKORRA	219.635,9	111.962,4	238.568,6	123.907,6	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	-21,9	-22,5
<i>Etengabeko merkatua: BUIS</i>	219.635,7	111.962,3	238.568,6	123.907,6	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	-21,9	-22,5
<i>Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)</i>	0,2	0,1	0	0	0	0	0	0	-	-
ERRENTA FINKOA	2.939,3	1.469,6	8.165,4	4.082,3	4.290,4	2.145,2	3.071,8	1.533,5	-28,4	-28,5
<i>Etengabeko merkatua: Elektronikoa</i>	9,6	4,7	6,4	2,8	3,6	1,8	9,2	2,2	153,5	22,5
<i>Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)</i>	12,4	6,2	4,6	2,3	0,9	0,5	0,3	0,6	-67,4	-67,4
Konturako Anotazio Zerbitzuak (KAZ)	2.917,4	1.458,7	8.154,4	4.077,2	4.285,9	2.142,9	3.062,2	1.531,1	-28,6	-28,6

(*)Milioika eurotan.

Iturria: Bilboko Burtsa

6. GOGOETAK

2012ko lehenengo seihilekoan munduko jarduera ekonomikoaren abiadura moteldu zen, industria-ekoizpena eta nazioarteko merkataritza murrizteagatik, funtsean. Bigarren seihilekoan jarduera egonkortzen joan zen ekonomia aurreratuetan, eta gora egin zuen goranzko merkatuen eta garatzeko bidean dauden merkatuen ekonomietan, politikek konfiantza suspertzen lagundu baitute.

Horrela, Europako agintariek hartutako neurri zorrotzek konfiantza eta finantza-baldintzak hobetzen lagundu zuten. Estatubatuarrek "amildegi fiskala" ekidin zuten, eta, aurreikusitako dezelerazioa baino handiagoa izan zenari erantzunez, Japoniak politika makroekonomiko hedagarriagoak hartu zituen. Denborak aurrera egin ahala, funtsezko garrantzia daukaten goranzko merkatuetako politikak baretu izanak barneko eskaria suspertu zuen.

Aldi berean, finantza eta moneta baldintzak gero eta onuragarriago bilakatzen joan ziren, urteak aurrera egin ahala, errentagarritasunaren bilaketa eta ekonomia garatu nagusietako batzuetako banku zentralen moneta politika hedagarrietan sakontzeko aukerak nagusi izan dituen ingurunean.

Hala ere, urte osoan, benetako hazkuntza % 3,2koa izan zen; aurreko aldian, berriz, % 4koa, eta munduko merkataritza nabarmenki ahuldu zen (% 2,5 eta aurreko urtean % 6).

Munduko ekonomiaren joeran ikusi den joera-aldaketan ez bezala, euroaren eremuko BPGk berriro egin zuen behera 2012ko laugarren hiruhilekoan, hau da, sei hiruhilekoz jarraian egin du behera ekonomiak 2011ko udatik, eta horrek eremuan berriro atzeraldia jasatea ekarri zuen. Urte arteko datuei dagokionez, 2012an BPGaren benetako bariazio-tasa $-0,5\%$ koa izan zen; aurreko urtean, aldiz, $1,5\%$ eko hazkuntza izan zuen.

Eskaeraren esparruan, 2012an beherakada 2011n baino handiagoa izan zen. Are gehiago, inbertsio nahiz kontsumo pribatuak bariazio-tasa negatiboak izan zituzten: KFEgd $-3,9\%$ ko bariazio-tasa izan zuen, aurreko aldian $1,6\%$ ko hazkuntza izan zuen, ordea; kontsumo pribatuak, berriz, $1,2\%$ egin zuen behera, eta aurreko urtean $0,1\%$ eko hazkuntza izan zuen.

Bestalde, kontsumo publikoak $-0,1\%$ eko bariazio-tasa negatiboa mantendu du. Gailentzekoa da inbertsioak urtean zehar gero eta beherakada handiagoa izan duela, zehazki, lehenengo hiruhilekoan $-2,5\%$ eko bariazio-tasa izatetik laugarrenean $-4,9\%$ ko izatera iritsi da. Kanpoko sektoreari dagokionez, esportazioek $2,9\%$ egin dute gora, baina aurreko urteko hazkuntza $6,5\%$ koa izan zen, eta azpimarratzekoa da inportazioek behera egin dutela ($-0,9\%$), aurreko aldian $4,4\%$ ko hazkuntza izan ondoren.

Bestalde, lanari dagokionez, 2011n bariazio-tasa negatiboak izan zituen, eta 2012an zehar ere mantendu egin ziren. Hortaz, lanak 2012an $0,6\%$ egin zuen behera. Langabezia-tasa, 2012 osoa kontuan hartuz, $11,4\%$ koa izan zen, hau da, aurreko aldiko tasa baino ehuneko 1,2 altuagoa.

IAPCK neurtutako inflazio orokorrak gora egin zuen, 2012an $2,5\%$, batez beste, 2011n $2,7\%$ igo ostean. 2010aren bukaeratik, urte arteko inflazio-tasak nabarmenki mantendu dira 2% tik gora.

Jarduera ekonomikoaren beherakadaren ondorioz eta lana desagertu egin den arren, laneko produktibitatea dezeleratu egin zen aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, hau da, $1,2\%$ ko igoeratik tasa nulu batera igaro zen.

Testuinguru honetan, EUROSTATen datuen arabera, 2012an BPGaren gaineko zor publikoa estatu guztietan handitu da, Danimarkan, Grezian, Letonian, Hungarian, Polonia eta Suedian izan ezik. Egonkortasun Itunean ezarritako 60% ko muga honako estatu hauetan gainditu da: Belgika ($99,6\%$), Alemania ($81,9\%$), Irlanda ($117,6\%$), Grezia ($156,9\%$), Espainia ($84,2\%$), Frantzia ($90,2\%$), Italia (127%), Zipre ($85,8\%$), Hungaria ($79,2\%$), Malta ($72,1\%$), Holanda ($71,2\%$), Austria ($73,4\%$), Portugal ($123,6\%$) eta Erresuma Batua (90%). Euroaren Eremu osoan, BPGaren gaineko zor publikoa $90,6\%$ koa izan da.

Defizitari dagokionez, EUROSTATen arabera, Egonkortasunari eta Hazkunderari buruzko Hitzarmenean finkatutako BPGaren 3% ko muga gainditu ez zuten Estatu bakarrik hauek izan ziren: Alemania ($0,2\%$, superabita izan duen estatu bakarra dela), Estonia ($-0,3\%$), Suedia ($-0,5\%$), Bulgaria eta Luxemburg (biak $-0,8\%$), Letonia ($-1,2\%$), Finlandia eta Hungaria (biak $-1,9\%$), Alemania eta Austria ($-2,5\%$),

Errumania (-% 2,9) eta Italia (-% 3). Euroaren Eremu osoan, defizit publikoa BPGaren % 3,7ko maila baliokidean kokatu zen.

Defizit handienak honako estatu hauetan egon dira: Espainia (% 10,6), Grezia (% 10), Irlanda (% 7,6), Portugal (% 6,4), eta Erresuma Batua eta Zipre (biak % 6,3).

Europako ekonomiak izan duen bilakaera positibo urriak Espainiaren kasuan bilakaera txarragoa erakusten du, eta EINen datuen arabera, 2012ko laugarren hiruhilekoan bere beheranzko profila areagotu egin zen. EINek 2013ko otsailen plazaratu zituen Hiruhileroko Kontabilitate Nazionalaren (HKN) datuen arabera, espainiar ekonomiaren benetako BPGak 2013ko laugarren hiruhilekoan % 0,8 egin zuen behera, hiruhilekoen arteko datuen arabera, eta % 1,9 egin zuen behera, urte arteko datuen arabera, hau da, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi eta hiru hamarren gehiago, hurrenez hurren. Bada, BPGak 2012a urteko % 1,4ko beherakadarekin itxi zuen urtea, aurreko urtean % 0,4 gora egin ostean.

Autonomia Erkidegoei dagokionez, seik beherakada txikiagoa izan zuten, baina EB27ren batez bestekoa (-% 0,3) baino altuagoa, nolana ere: Balearrak (-% 0,3, EB27ko batez bestekoaren parean), Galizia (-% 0,9), Katalunia eta Kanariak (biak -% 1ekin) eta Madril eta Kantabria (biak -% 1,3rekin), baita Ceutako Hiri Autonomoa ere (-% 1,1). Emaizarik txarrenak izan zituztenak honakoak izan ziren: Gaztela-Mantxa (-% 3), Asturias (-% 2,5), Extremadura (-% 2,2) eta Errioxa (-% 2,1).

Per capita BPG nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 30.829 euroko BPGarekin, batez bestekoa (22.772 euro) baino % 34,5 gehiago, alegia. Haren atzetik datoz Madril, 29.385 euroko per capita BPGarekin, Nafarroa (29.071 euro per capita), Katalunia (27.248 euro biztanleko), Aragoi (25.540), Errioxa (25.508) eta Balear Uharteak (24.393). Beraz, guztiak daude estatuko batez bestekoaren gainetik. Kontrako egoeran daude Extremadura (15.394 euro), Andaluzia (16.960) eta Melilla (16.981).

Jardueraren beherakada horrekin batera, lanaren desagerpen prozesua azeleratu egin da. Gauzak horrela, 2011. urtean lanaldi osoan betetako lanpostu kopuru osoa % 1,7 murriztu bazen ere, 2012. urtean %

4,4 egin zuen behera. Soldatak % 5,1 jaitsi ziren; aurreko urtean, berriz, % 1,5. Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia-tasa (16-64 urtekoen artean) % 21,8koa izatetik % 25,2koa izatea igaro dela 2011 eta 2012a bitartean. Langabeziak autonomia-erkidegoen artean duen banaketa ez da homoginoa, ordea. Tasa baxuena honako autonomia erkidego hauek dute: EAE, % 15ekin, Nafarroa % 16,4rekin, Kantabria % 17,9rekin, Aragoi % 18,7rekin eta Madril, % 19,2rekin. Estatuko batez bestekoaren gainetik daude Ceuta (% 38,8), Andaluzia (% 34,7), Kanariar Uharteak (% 33,3), Extremadura (% 33,1), Melilla (% 28,9), Gaztela-Mantxa (% 28,6), Murtzia (% 28) eta Valentziako Erkidegoa (% 27,8).

BPGaren urte arteko beherakada handiagoa izan zenez eta lanaren desagerpenak gora egin zuen arren, landun bakoitzeko produktibitatea dezeleratu egin zen bigarren hiruhilekotik aurrera; baina, hala ere, handitu egin zen 2011ren eta 2012aren artean.

Espainiako ekonomiaren Ordainketa-balantzari dagokionez, kanpoko sektoreak egindako ekarpen positiboarekin batera, bere egoera hobetu egin du munduko gainerako eskualdeekin alderatuta. Ekonomiaren finantzazio beharra (defizita) BPGren % 3,2tik (2011n) % 0,2ra (2012n) igaro zen, hau da, 2.365 milioi euro, aurreko urtean baino 31.578 milioi gutxiago, alegia.

Bestalde, defizit publikoa (Estatuko Herri-administrazio guztiena, oro har) Kontabilitate Nazionalari dagokionez, 2011n BPGaren % 9,4koa izatetik 2012an % 10,6koa izatera igaro da. Ogasun eta Herri-administrazioen Ministerioaren datuen arabera, defizita, finantza-sistamarako laguntzak (38.343 milioi euro) kontuan hartu gabe, BPGaren % 6,98koa da. Defizit horrek helburu berrikusitik (% 6,3koa) BPGaren ehuneko 0,68 urrunduta esan nahi du.

Datuak eragileka bereiziz, Administrazio Zentralak, Autonomia Erkidegoek, tokiko korporazioek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, % 7,8ko, % 1,8ko, % 0,1eko eta % 1eko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak.

Azkenik, EAEn ibilbide ekonomikoan kontzentratuz, autonomia-erkidegoko jardueraren beherakada gailentzen da, baina datu zehatza

desberdina da estatistika-iturriaren arabera. BPGa %1,2 murriztu da urte arteko tasan, EUSTATen arabera; EINek adierazten duenez, berriz, beherakada %1,4koa izan da. Eskaintzaren ikuspuntutik, EAEko ekonomiaren balio erantsiak %1,2ko beherakada izan du 2012an zehar: eraikuntza -%6,3, bere beheranzko joerarekin jarraituz; industria eta energia -%2,4 (aurreko urtean, aldiz, %2 hazi zen); eta zerbitzuek ere jarduera-mailan %0,3ko beherakada izan dute.

Alderdi interesgarri samar bat da euskal ekonomiaren posizio teknologikoarekin lotutakoa. Horri dagokionez, 2010a eta 2011 alderatuz, BEGari dagokionez, eduki teknologiko ertaina-altua duten sektoreen pisua handitu egin da eta baxua edo ertaina-baxua duten sektoreena txikitu egin da; lanaren harira, talde bakoitzaren garrantzia egonkortu egin dela ikusten da, aurreko urteko datuekin alderatuta; eta salmenten alderdiari dagokionez, berriro hazi da eduki ertaina-baxua duten sektoreen pisua, eta eduki altua eta ertaina-altua duten sektoreena gutxi gorabehera berdindu mantendu da.

Nabarmendu beharra dago berriro ere maila teknologikorik altuena duten sektoreek izan dutela BEG hazkunderik handiena eta enplegu-murrizketarik txikiena, eta maila teknologiko baxuko sektoreek, aldiz, kontrako bilakaera izan dutela.

Eskariaren osagaien araberrako bereizketa eginez gero, etxebizitzetako kontsumoaren gastuak gorabeherak izan zituen hiruhilekoen artean eta urtea %1,6ko beherakadarekin amaitu zuen. Bestalde, herri-administrazioen gastuari dagokionez, bariazio-tasa negatiboak pixkanaka areagotzen ari dira, zehazki, lehenengo hiruhilekoan -%0,2koa izatetik hirugarrenean -%3,4koa izatera igaro da, baina laugarrenean beherakada txikiagoarekin bukatu zuen (-%1,6koa).

Kontsumo pribatuan nahiz publikoan izan diren urte arteko benetako bariazio-tasa negatibo hauek azken kontsumoak behera egin izana ekarri du. Zehazki, lehenengo hiruhilekoan bariazio-tasa nulua izatetik laugarrenean -%1,6koa izatera igaro da, eta, horrela, urteko batez besteko tasa -%1,2koa izan da. Inbertsioari dagokionez, eta zehazkiago ekipon-ondasunetan egindako inbertsioari dagokionez, datuek egoera zaila islatzen dute; izan ere, beherakada-tasak urteak aurrera egin ahala hazten joan dira, lehenengo

hiruhilekoan %1,3ko bariazio-tasa negatiboa izatetik laugarrenean -%5,8koa izatera iritsi baita.

EUSTATen arabera, kontsumo pribatuak egoeraren arabera dituen adierazle nagusiek berretsi egin dute islatutako egoera. Bada, Industria-ekoizpenaren indizearen urte arteko bariazio-tasak, kontsumoko ondasunei dagokionez, -%5,1eko bariazioa izan du 2012an azalera handietako salmentei dagokionez, baita prezio konstanteei dagokionez ere (-%3,2); automobilen matrikulazioen kasuan -%16,7ko bariazioa izan da, eta ostatu-gauek gora egin duten arren (EAEko ostatu-gau propioak salbuetsita), aurreko aldi bano gutxiago igo dira, hau da, %1,1 egin dute gora, eta 2011n %5,1. Inbertsio-adierazleei dagokionez, ekipo-ondasunen Industria-ekoizpenaren indizeak 7,7 egin du behera (aurreko aldi bano, %5,2ko igoera izan zuen). Zamaletarako ibilgailu industrialen matrikulazioak %42,9ko beherakada izan zuen aurreko urteko %19,3ko beherakadaren aldean.

Lanaren bilakaera, lanpostutan neurtuta, EUSTATen hiruhileroko kontu ekonomikoaren arabera, negatiboa izan da, zehazki, 2012an %2,5eko batez besteko beherakada izan du. Beherakada hori sektore guztietan ikusi da, txikiagoa izan da lehenengo sektorean (-%0,1) eta zerbitzuen sektorean (-%0,8) eta handiagoa eraikuntzaren sektorean (-%11,8) eta industrian (-%4,3), baina neurri txikiagoan.

Laneko itxurazko produktibitatean, termino errealetan, %1,4 hazi zen 2012an, hau da, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago, lanak ekoizpenak baino gehiago egin baitzuen behera. EAEko produktibitate errealearen hazkunde hori Europar Batasuneko baino handiagoa izan zen (bai EB27koa, bai euro zonakoa kontuan hartuz gero, 2011n %1etik gorako emaitzak lortu ondoren eskualde horietako produktibitatea %0,1 hazi baitzen), eta behin-behineko datuen arabera, Espainiako estatuko tasa erreala askoz altuagoa izan zen, +%3koa, hain zuzen, urtean zehar galdutako enplegu kopuru handiaren ondorioz.

Bestalde, 2012rako behin-behineko datuek gure ekonomiaren ULK korronteen beherakada bat islatzen dute, aurreko urtean ez bezala (-%0,7, 2011ko ratio bera), industrian txikiagoa izan da (-%0,9) eta eraikuntzan handiagoa (-%9,2). Zerbitzuek, bestalde, ULK korronteen hazkundera eduki dute, %0,5koa, aurreko urtean %0,1eko hazkundera izan zuten bitartean. Europar Batasunean, ULK nominalak,

soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatuta, % 2,9 areagotu ziren 2012. urtean (EB27) eta % 1,6 euro zonan. Aurreko urtean, berriz, +0,9ko bariazioak izan zituzten biek. Bitartean, Estatuan, 2011n % 1,5eko bariazio negatiboa egon da, eta -% 3,1ekoa 2012an, behin-behineko datuekin.

Inflazioari dagokionez, EAEn, 2012an zehar, prezioek hiru etapa izan dituzte: urtearen lehenengo zatia nahiko laua izan da, udaren ostean gora egin dute eta 2012ko azken hilabeteetan behera egin dute. Bada, urteko batez besteko tasa % 2,3koa izan da, hau da, 2011ko datua baino 8 hamarren baxuagoa. Batez besteko mailak behera egin duen arren, abenduko urte arteko inflazioa % 2,7koa da, aurreko urtekoa baino 3 hamarren gehiago. Horren arrazoietakoa bat da abuztuan petrolioaren prezioak gora egin zuela eta BEZak irailean gora egin zuela eta, gainera, elektrizitate-tarifaren prezio arautuek gora egin zutela.

Osozara, 2012a euskal ekonomiarako urte zaila izan dela esan daiteke. Gure ekoizpen-egituraren ezaugarriak ikusita, bereziki kezkarria da industriak izan duen beherakada, zalantzarik gabe bere lehentasunezko merkatua osatzen duten arlo ekonomikoetan ikusi den jarduera eskasak areagotu duena. Era berean, ez dugu ahaztu behar Zerbitzuen sektoreak izan duen bilakaera, urtea % 1aren inguruko tasa negatiboarekin bukatu baitu. Horrek guztiak eragin garrantzitsua izan du lan-merkatuan; hain zuzen ere, urtearen bukaerako langabezia-tasa egungo krisi ekonomikoaren hasieran zegoenaren bikoitza da. Laburbilduz, esan daiteke aldagai garrantzitsu guztietan beheranzko profila ikusten dela, eta momentuz ez da ikusten inolako joera-aldaketarik.